Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# Txapelketen Oinarri, Arau eta Erreglamenduak

2025/2026 denboraldia

# OI.AR.ER

Txapelketen Oinarri, Arau eta Erregelamenduak

2025/2026 denboraldia



Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

## AURKIBIDEA


**TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK** ........ 6
I.- EUSKAL FEDERAZIOAREN LEHIAKETETAN PARTE HARTZEA ........ 6
II- EUSKADIKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK UKO EGINEZ GERO ........ 6
III- SAILKATZEKO ARAUDIA ETA IRIZPIDEAK ........ 6
IV.- UKO EGITEAK, ERRETIRATZEAK ETA EZ-AGERTZEAK ........ 7
V.- ARBITRAJEAK ........ 7
VI.- 2025/2026 DENBORALDIKO ARBITRAJE TARIFAK ........ 7
VII.- FORMULA EKONOMIKOA ........ 9
VIII.- JOKALARIEN LERROKATZEAK ........ 9
IX - KATEGORIA BAKOITZEKO PARTE HARTZAILEEN ADINEN TAULA ........ 9
X.- PRESTAKUNTZA ESKUBIDEAK ........ 9
XI- TALDEETAKO OFIZIALAK ........ 9
XII.- JOKALARIEN, OFIZIALEN, ENTRENATZAILEEN ETA ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEEN LIZENTZIAK TRAMITATZEA ........ 10
XIII.- JOKALARIEN, OFIZIALEN, ENTRENATZAILEEN ETA ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEEN BAJAK ........ 12
XIV.- AZTERKETA MEDIKOA ........ 12
XV.- PARTIDEN IRAUPENA ........ 13
XVI.- OHAR OSAGARRIAK ........ 13
XVII.- ABALAK ........ 15
XVIII.- IZENA EMATEKO KUOTAK ........ 15
XIX.- KLUBEN LIZENTZIA KUOTAK ........ 15
XX.- AKTA DIGITALA ........ 15
XXI.- XEDAPEN IRAGANKORRA ........ 15
XXII.- COVID-19AREN ERAGINA TXAPELKETAN – EZOHIKO NEURRIAK ........ 16
XXIII.- 2025-2026 EGUTEGIA ........ 17
**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ........ 20
I.- NOIZ EGINGO DEN ........ 21
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ........ 21
III.- LEHIAKETA FORMULA ........ 21
IV.- GIZONEZKOEN BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALAREN 2. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ........ 22
V.- JAITSIERAK ........ 22
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ........ 22
VII.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA ........ 23
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ........ 23
IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK ........ 25
**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOTZEKO ARAUDIA 2025-2026** ........ 26
I.- NOIZ EGINGO DEN ........ 27
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ........ 27
III.- LEHIAKETA FORMULA ........ 27

IV.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ... 28
**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ... 29
I.- NOIZ EGINGO DEN ... 30
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ... 30
III.- LEHIAKETA FORMULA ... 30
IV.- EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALAREN 2. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ... 31
V.- TALDEKAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK ... 31
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ... 31
VII.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA ... 32
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ... 32
IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK ... 34
**GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ... 35
I.- NOIZ EGINGO DEN ... 36
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ... 36
III.- LEHIAKETA FORMULA ... 36
IV.- GAZTE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ... 37
V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK ... 38
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ... 38
VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK ... 39
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ... 39
IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK ... 40
**EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ... 42
I.- NOIZ EGINGO DEN ... 43
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ... 43
III.- LEHIAKETA FORMULA ... 43
IV.- GAZTE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ... 45
V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK ... 45
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ... 46
VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK ... 46
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ... 47
IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK ... 48
**GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ... 49
I.- NOIZ EGINGO DEN ... 50
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ... 50
III.- LEHIAKETA FORMULA ... 50
IV.- KADETE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ... 52
V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK ... 52
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ... 53
VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK ... 53
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ... 54

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano


IX.- ARAU TEKNIKOAK ..... 55
X.- XEDAPEN OSAGARRIAK ..... 55
**EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026** ..... 57
I.- NOIZ EGINGO DEN ..... 58
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 58
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 58
IV.- KADETE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ..... 60
V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK ..... 60
VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK ..... 61
VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK ..... 61
VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 62
IX.- ARAU TEKNIKOAK ..... 63
X.- XEDAPEN OSAGARRIAK ..... 64
**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (Nazionalak) 2025-2026** ..... 65
I.- NOIZ EGINGO DEN ..... 66
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 66
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 66
IV.- ARAUDIA ..... 66
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA ..... 67
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 67
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK ..... 67
**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (Nazionalak), 2025- 2026** ..... 68
I.- NOIZ EGINGO DEN ..... 69
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 69
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 69
IV.- ARAUDIA ..... 69
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA ..... 70
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 70
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK ..... 70
**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026** ..... 71
I.- NOIZ EGINGO DEN ..... 72
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 72
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 72
IV.- ARAUDIA ..... 72
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA ..... 73
IV.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 73
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK ..... 73
**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026** ..... 74
I.- NOIZ EGINGO DEN ..... 75
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 75
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 75

IV.- ARAUDIA ..... 75
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA..... 75
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 76
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK..... 76
**GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026**.....77
I.- NOIZ EGINGO DEN..... 78
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 78
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 78
IV.- ARAUDIA ..... 78
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA..... 78
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 79
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK..... 79
**EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026** .....80
I.- NOIZ EGINGO DEN..... 81
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 81
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 81
IV.- ARAUDIA ..... 81
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA..... 82
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 82
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK..... 82
**GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026**.....83
I.- NOIZ EGINGO DEN..... 84
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 84
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 84
IV.- ARAUDIA ..... 84
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA..... 84
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 85
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK..... 85
**EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026** .....86
I.- NOIZ EGINGO DEN..... 87
II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK ..... 87
III.- LEHIAKETA FORMULA ..... 87
IV.- ARAUDIA ..... 84
V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA..... 88
VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK ..... 88
VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK..... 88
**GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN GAZTE ETA KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOTZEKO ARAUDIA 2025-2026**.....89
**I ERANSKINA**.....91

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK (Euskal Kopa izan ezik)**

I.- EUSKAL FEDERAZIOAREN LEHIAKETETAN PARTE HARTZEA

Ez da baimentzen lehiaketa berean izen bereko bi taldek edo gehiagok parte hartzea.

Ondorioz, klub batek bi talde badauzka, beheragoko mailan dagoen taldeak ezin izango du mailaz igo, nahiz eta horretarako sailkatu; hori dela eta, sailkapen nagusian atzetik duen taldeak hartuko du haren lekua.

Arrazoi beragatik, izan duen sailkapenagatik goragoko kategorian parte hartzen duen taldeak beheragoko hurrengo kategoriara jaitsi behar badu, azken kategoria horretan talde bietako bat bakarrik geratu ahal izango da.

Era berean, Euskadiko Federazioaren Ohiko Batzar Nagusian 1998ko ekainean onartutakoaren arabera, lehiaketetan parte hartzeko ezinbestekoa da izen ematea idatziz egitea, eta azken eguna 2025eko uztailaren 4a izango da. Hala egin ezean, dagokion kategorian parte hartzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

II- EUSKADIKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK UKO EGINEZ GERO

Talde batek, garaiz eta behar bezala, parte hartzeari uko egiten badio, edo izen ematea ezarritako epean egiten ez badu, honako irizpide taula honi jarraituko zaio haren lekua nork bete beharko duen zehazteko:

GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

a) Maila galdu zuen taldea automatikoki. Bi taldek edo gehiagok eskubideok badituzte, lehenik eta behin txapelketan lortutako sailkapen ordena hartuko da kontuan, eta Partiden eta Lehiaketen Araudian adierazitako irizpideen arabera.

b) Igoera Ligan parte hartu zuen taldea. Bi taldek edo gehiagok eskubideok badituzte, lehenik eta behin Igoera Ligan lortutako sailkapen ordena hartuko da kontuan, eta Partiden eta Lehiaketen Araudian adierazitako irizpideen arabera.

c) Aurreikusi gabeko kasuetan, Euskal Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak ebatziko du.

EUSKADIKO GAZTE ETA KADETE MAILAKO TXAPELKETAK

a) Maila galdu zuen kluba automatikoki. Bi klubek edo gehiagok eskubideok badituzte, lehenik eta behin txapelketan lortutako sailkapen ordena hartuko da kontuan, eta Partiden eta Lehiaketen Araudian adierazitako irizpideen arabera.

b) Igoera Ligan parte hartu zuen kluba. Bi klubek edo gehiagok eskubideok badituzte, lehenik eta behin Igoera Ligan lortutako sailkapen ordena hartuko da kontuan, eta Partiden eta Lehiaketen Araudian adierazitako irizpideen arabera.

c ) Aurreikusi gabeko kasuetan, Euskal Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak ebatziko du.

MAILA GUZTIETAKO EUSKAL KOPA

a) Euskal Kopan parte hartzeari uko eginez gero, maila bakoitzeko Euskal Kopa antolatu ahal izateko, beharrezkoa izango da denboraldirako kategoria bakoitzeko taldeen %50ek gutxienez izen ematea.

b) Gutxieneko hori lortzen ez bada, ez da dagokion Euskal Kopa antolatuko.

III- SAILKATZEKO ARAUDIA ETA IRIZPIDEAK

Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudian (Ezohiko Batzar Nagusian onartua 2020ko urriaren 10ean) eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudian (Ezohiko Batzar Nagusiak 2018ko ekainaren 30ean eta Eusko Jaurlaritzak 2018ko abuztuaren 21ean onartua) xedatutakoa beteko da.

Puntu honetan sartzen da 2025eko ekainaren 19ko ohiko batzar orokorrean onartutakoa: Euskal Eskubaloi Federazioak antolatutako lehiaketa guztietan luzapenak kentzea eta, berdinketa egonez gero, zuzenean 7 metroko jaurtiketetara pasatzea.

IV.- UKO EGITEAK, ERRETIRATZEAK ETA EZ-AGERTZEAK

Kontuan hartuko da Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudian (2020ko urriaren 10eko Ezohiko Batzar Nagusian onartua) eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudian (Ezohiko Batzar Nagusiak 2018ko ekainaren 30ean eta Eusko Jaurlaritzak 2018ko abuztuaren 21ean onartua) xedatutakoa.

V.- ARBITRAJEAK

a) Euskal Eskubaloi Federazioko Epaile Batzorde Teknikoak izendatuko ditu partidak gidatuko dituzten arbitroak.

b) Kronometratzaile eta ohar hartzaile funtzioa beteko duten pertsonak partida egingo den mugapeko Lurralde Federaziokoak izango dira. Dagokion denboraldiko lizentzia izan beharko dute indarrean, eta Euskadiko Epaile Batzordeak izendatuko ditu.

c) Partidetako arbitroek NAHITAEZ egin behar dute partiden akta DIGITALA.

d) Arbitro guztiek partida amaitu eta berehala jakinarazi behar dituzte partiden emaitzak, Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunearen bidez.

e) Neurketa bateko arbitroek ez badute partidaren akta digitala egiten, edo ez badute partidaren emaitza jakinarazten, nahitaezkoa den moduan, Kirol Diziplinako Batzordeari jakinaraziko zaio, araudiaren arabera joka dezan.

f) Arbitroen aldagelan ahal dela, eta, bestela, alboko leku batean (joko pistan inoiz ere ez), mahai bat eta aulki bat egon beharko dira partidaren akta egiteko.

VI.- 2025/2026 DENBORALDIKO ARBITRAJE TARIFAK

a) ARBITRAJE ESKUBIDEAK:

- Senior mailako Euskadiko Txapelketa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 70€ x arbitroa
- Kadete eta Gazte mailako Euskadiko Txapelketa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 35€ x arbitroa
- Senior mailako Euskadiko Txapelketarako igoera (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 70€ x arbitroa

- Senior mailako Euskal Kopa (Nazionala eta EL - Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 70€ x arbitroa
- Kadete eta Gazte mailako Euskal Kopa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 35€ x arbitroa
- Beteranoen Liga 70€ x arbitroa
- Hondartzako eskubaloia goiza (09:00 - 14:00) 50€ x arbitroa
- Hondartzako eskubaloia arratsaldea (15:00 - 21:00) 50€ x arbitroa
- Hondartzako eskubaloia gaua (21:00tatik aurrera)

b) ARBITRAJE FUNTSAK:

Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketa eta Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketarako igoera:

| | |
|---|---|
| - 2 arbitro + ohar hartzaile 1 | 215€ |
| - 2 arbitro | 168€ |
| - Arbitro 1 + ohar hartzaile 1 | 143€ |
| - Arbitro 1 | 95€ |

Gizonezkoen eta Emakumezkoen Gazte eta Kadete mailako Euskadiko Txapelketa:

| | | Larunbat goizez |
|---|---|---|
| - 1 arbitro | 64€ | 62,40€ |
| - 1 arbitro + ohar hartzaile 1 | 104€ | 101,40€ |
| - 2 arbitro | 109€ | 106,28€ |
| - 2 arbitro + ohar hartzaile 1 | 140€ | 136,50€ |

Tokiko klubak edo antolatzaileak banku transferentzia bat egingo du Euskal Eskubaloi Federazioaren Epaile Batzorde Teknikoaren (aurrerantzean EBT) kontura, partida egin eta **48 orduko epean gehienez** ere.

c) OHAR HARTZAILEAREN – KRONOMETRATZAILEAREN ESKUBIDEAK

- Senior mailako Euskadiko Txapelketa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 35€/pertsona
- Senior mailako Euskadiko Txapelketarako igoera (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 35€/pertsona
- Kadete eta Gazte mailako Euskadiko Txapelketa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 29€/pertsona
- Kadete eta Gazte mailako Euskadiko Txapelketarako igoera (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 29€/pertsona
- Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskal Kopa (nazionalak) 35€/pertsona
- Senior mailako Euskal Kopa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 35€/pertsona
- Kadete eta Gazte mailako Euskal Kopa (Gizonezkoak eta Emakumezkoak) 29€/pertsona

d) JOAN-ETORRIAK

0,25 euro kilometroko, kategoria guztietan. Autobideetako gastuak, erabiltzean kobra daitezke. Gastu hori kobratu ahal izateko, partidaren ordainagiriarekin batera ziurtagiriak igo/aurkeztu beharko dira.

e) DIETA

28€ kategoria guztietan.

f) OHAR GARRANTZITSUAK

1. Epaile estamentuak ez du kilometrajeagatiko dietarik kobratzeko eskubiderik izango.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

2. Epaile estamentuak dieta kobratzeko eskubidea izango du IGANDE edo JAIEGUN bateko 16:30etik aurrera (Finalak eta jubenil eta kadete mailako 4ko finalak ezik – 2022/06/30 batzarra) edo LARUNBAT bateko 22:00etatik aurrera hasten diren neurketetan, bai eta lanegunetan (astelehenetik ostegunera) egiten direnetan ere. 2008/06/14ko batzarrean onartu zen, inplikatutako bi klubek hala adostu ondoren, lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatzea, baldin eta jardunaldi berekoa bada, arbitraje dietaren inolako kosturik gabe.

3. Epaile estamentuak dieta kobratzeko eskubidea badu, kluben arteko akordioa dela-eta, partidaren data eta/edo ordutegia aldatzeko, Arbitraje Funtsaren zenbatekoari gehituko zaio, klub antolatzailearen kontura.

## VII.- FORMULA EKONOMIKOA

Taldeen kontura izango dira joan-etorrietarako, arbitrajeetarako eta, oro har, Euskal Eskubaloi Federazioaren lehiaketei dagozkien partidak antolatzeko gastu guztiak.

## VIII.- JOKALARI ZERRENDAK

Kontuan hartuko da Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudian (2023ko ekainaren 26an Ezohiko Batzar Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak 2023ko azaroaren 8an onartua) eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudian (Ezohiko Batzar Nagusiak 2023ko ekainaren 26an eta Eusko Jaurlaritzak 2023ko azaroaren 8an onartua) xedatutakoa.

Norberarena ez den beste talde batekin lerrokatu ahal izateko, kirolariek jokatu behar duten taldearen kupo gehigarrian sartuta egon beharko dute, eta Federazioak baliozkotuta (ezinbesteko baldintza), 2024ko ekainaren 27ko Ohiko Batzar Nagusian onartutakoaren arabera.

- Kirolariak kupo osagarrian sartzeko azken eguna aste bereko osteguna da, arratsaldeko 18:00ak baino lehen.
- Sartuta eta/edo balidatuta egon gabe kirolariak lerrokatzen badira, lerrokadura bidegabetzat hartuko da.

## IX - KATEGORIA BAKOITZEKO PARTE HARTZAILEEN ADINEN TAULA

| | |
|---|---|
| - GIZ. ETA EMAK. SENIOR MAILAKO KATEGORIA | 2007 ARTE JAIOTAKOAK |
| - GIZ. ETA EMAK. GAZTE MAILAKO KATEGORIA | 2008 eta 2009 BITARTEAN JAIOTAKOAK |
| - GIZ. ETA EMAK. KADETE MAILAKO KATEGORIA | 2010 eta 2011 BITARTEAN JAIOTAKOAK |
| - GIZ. ETA EMAK. HAUR MAILAKO KATEGORIA | 2012 eta 2013 BITARTEAN JAIOTAKOAK |

## X.- PRESTAKUNTZA ESKUBIDEAK

Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen eta Diziplina Araudian xedatutakoari jarraituko zaio. Horiek aurrez aipatutako batzarretan onartu ziren.

## XI- TALDEETAKO OFIZIALAK

a) ENTRENATZAILEA

Parte hartuko duten talde guztiek nahitaez eduki behar dituzte estatu edo lurralde kategoriako titulua duen entrenatzaile baten zerbitzuak.

Taldeko entrenatzaile titularra ez badago, parte hartzen ari den taldearen klub bereko beste entrenatzaile eta entrenatzaile laguntzaile batzuk eseri ahal izango dira aulkian. Kasu horretan, lizentziari ez dagokion beste talde batean entrenatzaile edo entrenatzaile laguntzaile lanak egiteko, dagokion lehiaketarako eskatzen den titulazioa eduki beharko da. Aulkian ofizialen arauzko kopurua baino ezin izango da egon.

Entrenatzaile lizentzia Euskal Federazioak bideratuko du, indarrean dagoen araudiaren arabera.

b) ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEA

Talde guztiek daukate entrenatzaile laguntzaile baten zerbitzuak izateko baimena, zeinak monitore titulua eduki beharko baitu, gutxienez.

Entrenatzaile laguntzailearen lizentzia Euskal Federazioak bideratuko du, indarrean dagoen araudiaren arabera.

c) TALDEKO OFIZIALA

Euskal Federazioaren lehiaketetan parte hartzen duten talde guztiek taldeko ofizialaren bi (2) lizentzia eskatu behar dituzte izena emateko unean, jokalarien eta entrenatzailearen lizentziekin batera. Horien artean, batek taldeko ordezkariaren funtzioak eta beste batek zelaiko ordezkariaren funtzioak beteko dituzte.

Klub batek “taldeko ofizialaren” bost (5) lizentzia eska ditzake gehienez ere bere talde bakoitzerako.

Neurketa ofizialetan, partida horietako bakoitzean parte hartuko duten taldeek arbitroei adierazi beharko diete zein funtzio beteko duen “taldeko ofizialaren” lizentziaren titular bakoitzak, lizentziak aurkezteko unean.

Baimena ematen da ordezkari funtzioak, taldekoak zein zelaikoak, ofizial, entrenatzaile edo entrenatzaile laguntzaile edo jokalari lizentzia duen talde arduradun batek egin ahal izateko. Aktan jaso beharko da partidan zehar beteko duten funtzioa, ez ordea fitxan agertzen dena, 21/07/03an egindako batzarrean onartutakoaren arabera. ZELAIKO ORDEZKARI lanak egiten dituzten pertsonek 18 urte beteta izan beharko dituzte.

d) OHARRAK

Parte hartzen duten talde guztiek entrenatzaile bat eduki behar dute, aktan izena emanda eta partidan fisikoki presente.

Parte hartzen duten talde guztiek taldeko ordezkari bat eduki behar dute, aktan izena emanda eta partidan fisikoki presente. Arau hori betetzen ez bada, zigor hau ezarriko da:

- Agertzen ez den bakoitzeko: 20€ (Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketa) eta 10€ (gainerako txapelketak).

Parte hartzen duten talde guztiek ZELAIKO ORDEZKARI bat eduki behar dute, aktan izena emanda eta partidan fisikoki presente. Arau hori betetzen ez bada, aurrekoaren zigor bera ezarriko da.

Partida bateko staff teknikoa osatzen duten pertsona guztiak teknikari eta ofizial kargua agertuko duen bereizgarri zintzilikari baten bidez identifikatuko dira (23/06/28ko batzarra)

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

XII.- JOKALARIEN, OFIZIALEN, ENTRENATZAILEEN ETA ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEEN LIZENTZIAK TRAMITATZEA

Lizentzien tramitazioa 2018ko ekainaren 30ean Batzarrak onartu eta ondoren Eusko Jaurlaritzak baliozkotu zuen Lizentzien Erregelamenduaren arabera dago araututa.

a) Lizentziak tramitatzeko, klubek horretarako sortutako inprimaki espezifikoa aurkeztu beharko dute dagokion Lurralde Federazioan. Bertan, Lizentzien Erregelamenduko 20. artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.

b) Jokalarien eta ofizialen lizentziak Euskal Eskubaloi Federazioak emango ditu, Lizentzien Erregelamenduko 21. artikuluan ezarritakoa betez.

c) Sinatzeko laukitxoa interesdunak bete beharko du kasu bakoitzean, eta taldeko kideei dagozkien sinadura guztiak agertu beharko dira (jokalariak, ofizialak, entrenatzaileak eta entrenatzaile laguntzaileak).

d) Osatu gabe edo akatsekin aurkezten den eskaera oro atzera botako da.

e) Inprimakiak, behar bezala beteta, lehiaketa bakoitza hasi baino hamar egun lehenago aurkeztu beharko dira Lurralde Federazioan, gutxieneko jokalari kopuruaren zerrendarekin (lehiaketaren oinarrietan zehaztutakoak) eta talde bakoitzak nahitaez izan behar dituen ofizial, entrenatzaile eta entrenatzaile laguntzaileekin. Hala ere, komenigarria litzateke inprimakiok lehenago jasotzea fitxa egiteko tramiteak errazte aldera.

f) Dagokion Lurralde Federazioak altak egiaztatu eta Euskal Federazioari alta inprimakiak bidali ondoren, Federazioak lizentziak baliozkotuko ditu klubek lizentziak formatu digitalean deskargatu ahal izateko, 2021eko uztailaren 3an egindako batzarrean onartu zen bezala.

g) Txapelketa hasi eta hogeita hamar egun igaro ondoren, ezin izango da partida ofizial batean jokalaririk, ofizialik, entrenatzailerik eta/edo entrenatzailearen laguntzailerik jarri baldin eta partida hasi aurretik neurketako epaileei lizentzia aurkezten ez badiete, salbu eta ez aurkeztearena arrazoi justifikatuen ondorio bada. Arrazoi horiek organo eskudunak aztertu beharko ditu betiere. Kasu horretan, nahikoa izango da NANa aurkeztea, eta pertsonaren zenbakia eta sinadura partidako aktan jasotzea.

h) OHAR GARRANTZITSUAK

   Denboraldi baterako edo gehiagorako talde batek tramitatutako fitxa eduki arren denboraldi ofizial osoan partidarik jokatu ez duen jokalariak lizentzia berri bat bideratu ahal izango du beste talde batekin, kategoria berekoa izan arren, baldin eta lizentzia berria tramitatzeko eta jatorrizko taldean baja emateko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

   Aurrekoa gorabehera, denboraldi osoan zehar klub batek partida ofizialetan jokatzeko zerrendan sartu ez duen jokalariari ofizioz baja emango zaio, eskatzen badu, fitxan sinatutako urteak gorabehera.

   Jokalari bat klub bateko kide izango da klub horretako taldeek fitxatu duten adina denboraldiz, nahiz eta taldeok mailaz aldatu, jokalariak sinatutako denboraldiek iraun bitartean.

   Edozein klubek indarrean dituen lizentziak automatikoki baliogabetuko dira eskubaloiko lehiaketa ofizialetatik bere talde guztiak erretiratzen dituenean, edo Partiden eta Lehiaketen Araudian berariaz jasotako kasuetan.

i) LIZENTZIA BIKOIZTUAK

Partiden eta Lehiaketen Araudi berria martxan dela kontuan hartuta, eta 2018ko ekainaren 30eko Ezohiko Batzarrean onartu zen Lizentzien Erregelamenduari dagokionez (5. artikulua), lizentzien bikoiztasuna baimentzen da klub beraren barruan. Pertsona berari beste lizentzia bat emateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Pertsona batek klub bateko jokalari lizentzia eta beste klub bateko entrenatzaile lizentzia tramitatu ahal izango ditu (2018/06/30eko ezohiko batzarrean onartu zen bezala).

2. Bikoiztasun aukerak honako hauei dagozkie: entrenatzailea-jokalaria, entrenatzailea-ofiziala, entrenatzaile laguntzailea-jokalaria eta jokalaria-ofiziala.

3. Inplikazioaren ondorioz ezar daitezkeen diziplina zehapenak egiten diren esparruaren barruan bete beharko dira, aldi baterako edo jardunaldi zehatz batzuetarako etena dakartenak izan ezik, halakoetan ezin izango baita inolako neurketatan parte hartu, lizentzia mota edozein dela ere.

4. Zehapena inhabilitazioa bada, Estatu osora zabaldu ahal izango da.

j) OFIZIALEN LIZENTZIEN ERABILERARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Ofizialak partidetako zerrendan sartzeko eta horien erantzukizuna zehazteko baliozko irizpideak ezartzen dira, dagoen araudian oinarrituta. Lizentzia bat baliozkotasunez tramitatu eta erabiltzeko, Partiden eta Lehiaketen Araudian ezarritako arauak bete beharko dira, honela:

1. <u>Entrenatzailea</u>: izen hori daraman lizentzia emango zaio (ikus 14. artikulua) Estatu edo Lurralde mailako entrenatzaile titulua duenari.

2. <u>Entrenatzaile laguntzailea</u>: izen hori daraman lizentzia (ikus 18. artikulua) gutxienez monitore titulua duenari emango zaio. Entrenatzaile titularra ez badago (ikus 20. artikulua), haren funtzioetan ordezkatu ahal izango du.

3. <u>Taldeko ofiziala</u>: izen hori duen lizentzia emango da (ikus 21. artikulua) zeren talde guztiak behartuta baitaude dagokion tramitazioa eskatzera. Halako lizentzia bat duen pertsonak taldeko ordezkariaren edo zelaiko ordezkariaren funtzioak betetzeko ahalmena izango du (ikus 22. artikulua), eta pertsona berak ezin izango du funtzio bat baino gehiago bete neurketa ofizial batean. Lizentzia horrekin ezin dira ez entrenatzaile lanak ez entrenatzaile laguntzaile lanak egin.

4. <u>Zelaiko ordezkaria</u>: ofizial izeneko lizentzia da postu espezifiko hori betetzeko erabiltzen dena (ikus 22. eta 29. artikuluak). Partida jokatzen den bitartean, ohar hartzaile - kronometratzaile mahaiaren ondoan beteko du bere postua, eta ez du postu hori utziko, salbu eta, bere egitekoa dela eta, beste leku batean egotea beharrezkoa duenean.

Hala ere, 2014ko ekainaren 28an egindako Ohiko Batzar Nagusian, honako hau onartu zen: Ordezkari funtzioak, taldekoak zein zelaikoak, ofizial, entrenatzaile edo entrenatzaile laguntzaile lizentzia duen talde arduradun batek edo jokalari batek bete ditzake. Aktan jaso beharko da partidan zehar beteko duten funtzioa, ez ordea fitxan agertzen dena. 21/07/03an egindako batzarrean onartutakoaren arabera, ZELAIKO ORDEZKARIAREN funtzioak betetzen dituzten pertsonek 18 urte beteta izan beharko dituzte.

XIII.- JOKALARIEN, OFIZIALEN, ENTRENATZAILEEN ETA ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEEN BAJAK

Jokalarien, ofizialen, entrenatzaileen eta entrenatzaile laguntzaileen bajak tramitatzeko, Euskal Federazioan aurkeztu beharko da horretarako sortutako inprimaki espezifikoa, Lizentzien Araudiko 31. artikuluan adierazitakoaren arabera, behar bezala beteta, eta bere garaian tramitatutako lizentziarekin batera. Baja behin betiko emateko, organo eskudunak aztertu beharko du dokumentazio hori. Organo horrek ofizioz ere jardun ahal izango du, arauzko egoera eta betetzeen arabera.

XIV.- AZTERKETA MEDIKOA

Jardunean dauden jokalari guztiek, dagokien fitxa bideratu ahal izateko, azterketa mediko bat egin beharko dute, kirola egiteko gaitasuna dutela ziurtatzeko. Ziurtagiri hori lizentzia eskatzeko inprimakian agertu beharko da elkargokide zenbakiarekin batera, eta ziurtagiria kirolari bakoitzaren fitxara igo beharko da alta ematerakoan. Ziurtagiri hori gabe ez da kirolari lizentziarik tramitatuko.

XV.- PARTIDEN IRAUPENA

| KATEGORIA | 1. ZATIA | ATSEDENALDIA | 2. ZATIA |
|---|---|---|---|
| Seniorrak, Gazteak eta Kadeteak | 30 minutu | 10 minutu | 30 minutu |

Talde bakoitzak taldeko 3 hutsarte eskatzeko eskubidea du joko erregularrean zehar (ez ordea luzapenetan). Taldeko 2 hutsarte eman dakioke talde bati joko aldi erregular bakoitzean. Talde berari emandako 2 hutsarteren artean, aurkariak baloiaren jabe izan behar du gutxienez behin.

Talde bakoitzak 3 txartel berde izan behar ditu eskura, 1, 2 eta 3 zenbakiekin, hurrenez hurren. Taldeek 1 eta 2 zenbakidun txartelak jasoko dituzte jokoaren lehen zatian, eta 2 eta 3 zenbakidun txartelak bigarren zatian, baldin eta lehen zatian taldeko hutsarte bat bakarrik eskatu badute; bi eskatu badituzte, 3 zenbakidun txartela bakarrik egongo da eskuragarri.

Joko erregularreko denboraren azken 5 minutuetan, talde bakoitzari taldeko hutsarte bat baino ezin zaio eman.

XVI.- OHAR OSAGARRIAK

a) Klubari atxikitako gazte edo kadete mailako taldea:

   Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketan parte hartzen duten talde guztiek nahitaez izan behar dute talde bat gazte edo kadete mailan gutxienez (2022/06/30eko batzarraren erabakia), eta denboraldi osoan parte hartu behar dute indarrean dauden araudi eta erregelamenduekin bat etorriz. Baldintza hori betetzen ez duen taldea lehiaketatik kanpo geratuko da, erregelamendu bidez ezartzen diren zehapenekin.
   Araudi hori ez da aplikagarria SENIOR MAILAKO EUSKAL LIGARA igotzeko faseetan, non taldeek lurralde federazio bakoitzaren araudiaren arabera lehiatu ahal izango duten.
   (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba)

b) Emaitzak zabaltzea:

   Partiden emaitzak Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean jarriko dira, jakin ahala.

c) Jokalarien uniformetasuna:

   Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoa beteko da.

d) Joko pistak baimentzea:

Neurketa ofizialak klub federatuen zelaietan bakarrik egin ahal izango dira, beren jabetzakoak izan edo lagatakoak izan, baldin eta dagokion Lurralde Federazioak baimendu baditu, aldez aurretik jokorako baldintza teknikoak eta arauzkoak betetzen direla ikusi eta egiaztatu ondoren.

Jokalekuen azalerari, baldintzei eta ezaugarriei dagokienez, bai eta kantxarako eta instalazio osagarrietarako sarbideari dagokionez ere, Partiden eta Lehiaketen Araudian ezarritakoa hartu beharko da kontuan.

Araudi horretan zehaztutakoaz gain, nahitaez bete beharko dira honako arau hauek:

1. Mahai bat eta, gutxienez, hiru aulki jarri beharko dira joko pistaren kanpoan, erdialdean. Aulki horiek zelaiko ordezkariarentzat, ohar hartzailearentzat - kronometratzailearentzat eta joan litezkeen federazioko langileentzat izango dira.

2. Tokiko taldeak neurketa bakoitzerako ura emango dio epaile estamentuari. COVID-19AREN ONDORIOZ, TALDE BAKOITZAK BERE UR BOTILAK ERAMANGO DITU.

3. Nahitaezkoa izango da gol markagailu bat jartzea, joko pistako edozein angelutatik ikusteko moduko leku batean.

e) Parte hartzen duten talde guztiak behartuta daude beren partidak antolatzera, egutegi ofizialaren arabera dagokienean, kantxa estalian, beren jabetzakoa izan edo lagatakoa izan.

f) Klub guztiek nahitaez jakinarazi beharko diote dagokion Euskadiko eta Lurraldeko Federazioari zer joko pista ofizialetan egingo diren txapelketako norgehiagokak; bai eta instalazioaren izena, helbidea, herria, telefono zenbakia eta gainerako datu interesgarriak ere.

g) Joko baloia:
Euskal Eskubaloi Federazioak antolatutako txapelketetan erabiliko diren baloiak HUMMEL markakoak izango dira, ENERGIZER HB modelokoak edo antzekoak, baina betiere HUMMEL markakoak, 2021eko uztailaren 3an egindako batzarrean onartutakoaren arabera. Baloiek ondoren zehazten diren neurriak eta pisua izan beharko dituzte:

- Gizonezkoen absolutu eta gazte mailak: 58 cm-tik 60 cm-ra bitartean (zirkunferentzia) eta 425-475 gr-ko pisua (3. zk.).

- Emakumezkoen absolutu eta gazte mailak eta gizonezkoen kadete maila: 54 eta 56 cm bitartean eta 325-440 gr-ko pisua (2. zk.).

- Emakumezkoen kadete maila eta emakumezkoen eta gizonezkoen haur maila: 52 eta 54 cm eta 300-315 gr-ko pisua (1. zk.).

h) Klubaren datu espezifikoak jakinaraztea:

Txapelketa hasi baino hogeita hamar egun lehenago, gutxienez, parte hartzen duten klub guztiek txapelketaren datuak jakinarazi behar dituzte Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean.

i) Beste ohar batzuk:

1. Ez dago mugarik lurralde federazio berean parte hartzen duten taldeen kopuruan.

2. Lehiaketaren formula, egutegia eta txapelketa bakoitzaren gainerako datuak oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

j) Arbitraje txostena:

Euskal Ligako lehiaketa guztietan, tokiko gisa jokatzen duten taldeek arbitraje txostena osatuko dute (23/06/28ko batzarra)

XVII.- ABALAK

2025/2026 denboraldi honetarako, honako abal hauek ezarri dira:

- Gizonezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketa: 475
- Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketa: 475
- Gizonezkoen Gazte mailako Euskadiko Txapelketa: 160
- Emakumezkoen Gazte mailako Euskadiko Txapelketa: 160
- Gizonezkoen Kadete mailako Euskadiko Txapelketa: 160
- Emakumezkoen Kadete mailako Euskadiko Txapelketa: 160

Txapelketa bakoitzean izena emateko unean, klubak dagokion abala ordaindu beharko dio Euskal Eskubaloi Federazioari banku transferentzia bidez. Talde bat probintzia kategoriara jaisten bada edo kategoria nazionalera igotzen bada, abal hori itzuli egingo da.

XVIII.- IZENA EMATEKO KUOTAK

2025/2026 denboraldi honetarako, izena emateko kuota hauek ezarri dira:

- Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketa 87 euro taldeko
- Gazte eta Kadete Mailako Euskadiko Txapelketa (Gizon. eta Emak.) 55 euro taldeko
- Gizonezkoen eta Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketarako igoera 70 euro taldeko
- Gazte eta Kadete mailako Euskadiko Txapelketarako igoera (Gizon. eta Emak.) 33 euro taldeko
- Gizonezkoen eta Emakumezkoen Euskal Kopa (Senior, Gazte eta Kadete mailak) 42 euro taldeko

Betetzea: Lehiaketa bakoitzaren zozketa egin aurretik, Euskadiko Federazioari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko zaio, kasuan kasuko taldearen kategoriaren arabera.

XIX.- KLUBEN LIZENTZIA KUOTAK

2025/2026 denboraldi honetarako, kluben lizentzia kuota hauek ezarri dira:

- Estatu mailako taldeak dituzten klubak 172 €
- Erkidego mailako taldeak dituzten klubak 117 €
- Lurralde mailako taldeak dituzten klubak 63 €
- Lizentzia kuota 5€

(*) 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 23.3 artikulua.- "Pertsona fisikoak eta juridikoak kirol federazioetan integratzeko, dagokion lizentzia emango da".

## XX.- AKTA DIGITALA

2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

## XXI.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi orokor hau indarrean egongo da Euskal Federazioak antolatzen dituen txapelketa guztietan, horietako bakoitzaren arau espezifikoen barruan alda litezkeen alderdietan izan ezik.

Araudi honetan aurreikusten ez diren kasuak Euskal Federazioaren Estatutuetan, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudian eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araudiaren arabera ebatziko dira.

## XXII.- COVID-19AREN ERAGINA LEHIAKETAN - EZOHIKO NEURRIAK

Euskal Eskubaloi Federazioak une bakoitzean indarrean dauden osasun neurrietara egokituko du Lehiaketa Araudia.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

## XXIII.- 2025-2026 EGUTEGIA

| FECHAS | COMPETICIONES FEMENINAS 2025- 2026 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | SENIOR | SENIOR NACIONAL | ASC. SENIOR | JUVENIL | CADETE | INFANTIL |
| 23-24/08/2025 | | | | | | |
| 30-31/08/2025 | | Euskal Kopa | | | | |
| 06-07/09/2025 | | Euskal Kopa | | | | |
| 13-14/09/2025 | Euskal Kopa | Euskal Kopa | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 20-21/09/2025 | Euskal Kopa | | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 27-28/09/2025 | Euskal Kopa | | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 04-05/10/2025 | 1/2 Euskal Kopa | | | 1/2 Euskal Kopa | 1/2 Euskal Kopa | |
| 11-12/10/2025 | J01 | | | | | |
| 18-19/10/2025 | J02 | | | 1ªF-J01 | 1ªF-J01 | |
| 25-26/10/2025 | J03 | | | 1ªF-J02 | 1ªF-J02 | |
| 01-02/11/2025 | | | 1ªF-J03 | 1ªF-J03 | | |
| 08-09/11/2025 | J04 | | | 1ªF-J04 | 1ªF-J04 | |
| 15-16/11/2025 | J05 | | | 1ªF-J05 | 1ªF-J05 | |
| 22-23/11/2025 | J06 | | | | | |
| 29-30/11/2025 | J07 | | | 1ªF-J06 | 1ªF-J06 | |
| 06-07/12/2025 | | | | | | |
| 8/12/2025 | | | | | | |
| 13-14/12/2025 | J08 | | | 1ªF-J07 | 1ªF-J07 | |
| 20-21/12/2025 | J09 | | | 1ªF-J08 | 1ªF-J08 | |
| 27-28/12/2025 | | | | | | |
| 03-04/01/2026 | | 1/2 Euskal Kopa | | | | |
| 10-11/01/2026 | J10 | | | | | |
| 17-18/01/2026 | J11 | | | 1ªF-J09 | 1ªF-J09 | |
| 24-25/01/2026 | J12 | | | Promoción | Promoción | |
| 31/01-01/02/2026 | J13 | | | 2ªF-J01 | | |
| 07-08/02/2026 | J14 | | | 2ªF-J01 | 2ªF-J02 | |
| 14-15/02/2026 | J15 | | | 2ªF-J02 | 2ªF-J03 | |
| 21-22/02/2026 | | | 2ªF-J03 | 2ªF-J04 | | |
| 28/02-01/03/2026 | J16 | | | 2ªF-J04 | | |
| 07-08/03/2026 | J17 | | | 2ªF-J05 | | |
| 14-15/03/2026 | J18 | | | 2ªF-J05 | 2ªF-J06 | |
| 21-22/03/2026 | J19 | | | 2ªF-J06 | 2ªF-J07 | |
| 28-29/03/2026 | J20 | | | FINAL 4 | 2ªF-J08 | |
| 04-05/04/2026 | SEMANA SANTA | | | | | |
| 11-12/04/2026 | FINAL Euskal Kopa | | | FINAL Euskal Kopa | FINAL Euskal Kopa | |
| 18-19/04/2026 | J21 | | **1ª F** - PLAY OFF (1º Biz-1º Gip) | | 2ªF-J09 | JUEEGOS ESCOLARES |
| 25-26/04/2026 | J22 | | | 2ªF-J10 | | |
| 01/05/2026 | | | **2ª F** - PLAY OFF (Perd 1ºF-2º Biz-2º Gip) | | | |
| 01-02-03/05/2026 | PLAY OFF ASC | | | *Sectores Estatales | FINAL 4 | |
| 09-10/05/2026 | | | | Ascenso Liga Vasca | Ascenso Liga Vasca | |
| 16-17/05/2026 | | | | *Sector final | | *Sectores Estatales |
| 23-24/05/2026 | *Sectores Estatales Asc. | | | | *Sectores Estatales | |
| 30-31/05/2026 | | | | | | *Sector Final |
| 06-07/06/2026 | | | | Cto Vasco-Navarro | *Sector final | |
| 13-14/06/2026 | | | | | | |

Fecha Limite Fin. (RFEBM)

*Sectores Estatales

*En las jornadas 1-2 y 3 de la 2ª fase del cadete femenino (10-11) hay concentración en el CAR y luego de seguido es el Campeonato mediterráneo. Si alguna jugadora de algún club estuviera convocada se aplazaría los partidos del club afectado pero se tendrían que recuperar dichos partidos en las fechas del 21-22/02/2026 y 28-29/02/2026 que quedan libres. Para consentir los aplazamientos serian sujetos al acuerdo de los clubes implicados con las fechas de celebración.Si no hay acuerdo la fecha la pondria el comite de competicion.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

| FECHAS | COMPETICIONES MASCULINAS 2025 - 2026 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | SENIOR | SENIOR NACIONAL | ASC. SENIOR | JUVENIL | CADETE | INFANTIL |
| 23-24/08/2025 | | Euskal Kopa | | | | |
| 30-31/08/2025 | | Euskal Kopa | | | | |
| 06-07/09/2025 | Euskal Kopa | Euskal Kopa | | | | |
| 13-14/09/2025 | Euskal Kopa | | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 20-21/09/2025 | Euskal Kopa | | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 27-28/09/2025 | 1/2 Euskal Kopa | | | Euskal Kopa | Euskal Kopa | |
| 04-05/10/2025 | J01 | | | 1/2 Euskal Kopa | 1/2 Euskal Kopa | |
| 11-12/10/2025 | J02 | | | 1ªF -J01 | 1ªF -J01 | |
| 18-19/10/2025 | J03 | | | 1ªF-J02 | 1ªF-J02 | |
| 25-26/10/2025 | J04 | | | | | |
| 01-02/11/2025 | J05 | | | 1ªF-J03 | 1ªF-J03 | |
| 08-09/11/2025 | J06 | | | 1ªF-J04 | 1ªF-J04 | |
| 15-16/11/2025 | J07 | | | 1ªF-J05 | 1ªF-J05 | |
| 22-23/11/2025 | J08 | | | | | |
| 29-30/11/2025 | J09 | | | 1ªF-J06 | 1ªF-J06 | |
| 06-07/12/2025 | J10 | | | | | |
| 8/12/2025 | | | | | | |
| 13-14/12/2025 | J11 | | | 1ªF-J07 | 1ªF-J07 | |
| 20-21/12/2025 | J12 | | | 1ªF-J08 | 1ªF-J08 | |
| 27-28/12/2025 | | | | | | |
| 03-04/01/2026 | | | | | | |
| 10-11/01/2026 | J13 | | | | | |
| 17-18/01/2026 | J14 | | | 1ªF-J09 | 1ªF-J09 | |
| 24-25/01/2026 | J15 | | | Promoción | Promoción | |
| 31/01-01/02/2026 | J16 | | | 2ªF-J01 | 2ªF-J01 | |
| 07-08/02/2026 | J17 | | | 2ªF-J02 | 2ªF-J02 | |
| 14-15/02/2026 | J18 | | | 2ªF-J03 | 2ªF-J03 | |
| 21-22/02/2026 | J19 | | | 2ªF-J04 | 2ªF-J04 | |
| 28/02-01/03/2026 | J20 | | | 2ªF-J05 | 2ªF-J05 | |
| 07-08/03/2026 | J21 | | | 2ªF-J06 | 2ªF-J06 | |
| 14-15/03/2026 | J22 | | | 2ªF-J07 | | |
| 21-22/03/2026 | J23 | | | 2ªF-J08 | | |
| 28-29/03/2026 | J24 | | | FINAL 4 | 2ªF-J09 | |
| 04-05/04/2026 | SEMANA SANTA | | | | SEMANA SANTA | |
| 11-12/04/2026 | FINAL Euskal Kopa | | | FINAL Euskal Kopa | FINAL Euskal Kopa | |
| 18-19/04/2026 | J25 | | JORNADA-1 ASCENSO | | 2ªF-J10 | Fecha Limite Fin. (RFEBM)Juegos Esc |
| 25-26/04/2026 | J26 | | JORNADA-2 ASCENSO | Fecha Limite Fin. (RFEBM) | FINAL 4 | |
| 01/05/2026 | | | | | | |
| 02-03/05/2026 | PLAY OFF ASC. | | JORNADA-3 ASCENSO | | | |
| 09-10/05/2026 | | | JORNADA-4 ASCENSO | Ascens LV/ Sector Est | Ascenso Liga Vasca | *Sectores Estatales |
| 16-17/05/2026 | | | JORNADA-5 ASCENSO | | *Sectores Estatales | |
| 23-24/05/2026 | *Sectores Estatales Asc. | | PLAY OFF 2º-5º/3º-4º | *Sector final | | *Sector Final |
| 30-31/05/2026 | | | | | *Sector final | |
| 06-07/06/2026 | | | | Cto Vasco-Navarro | | |

Fecha Limite Fin. (RFEBM)
*Sectores Estatales

*Las jornadas 3ª juvenil de la 2ª fase y la 2ª cadete de la 2ª fase años (09-10) y (11-12) respectivamente hay concentración en el CAR.
Si algún club tenga convocado a algún jugador podría solicitar el aplazamiento de su partido. Para consentir dicho aplazamiento tendrían que dar la fecha de celebración de dicho partido con acuerdo de ambos clubes. Si no hay acuerdo la fecha la pondría el comité de competición.

*Las 1/2 finales de las Euskal Kopa nacionales serán con acuerdo de los equipos clasificados, notificando dichas fechas a la federación antes del 31 de Diciembre y la final igual que ya estipulara la fecha tope la federaciones caso de no llegar a acuerdo de los clubes implicados decidirá el comité de competición.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

## CALENDARIO SELECCIÓN EUSKADI 2025 - 2026

| | | Nº SESIONES ENTRENAMIENTO | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | JUV | | CAD | | INF | |
| | | M | F | M | F | M | F |
| **2025** | | | | | | | |
| 14/9/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 28/9/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 12/10/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 26/10/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 09/11/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 23/11/2025 | Entrenamiento o Partido amistoso | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 6 y 7/12/2024 | Concentración MAS-FEM | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 |
| 8/12/2025 | Partido Amistoso NAVARRA (Lekumberri) | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 21/12/2025 | Entrenamiento MAS-FEM | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 26/12/2025 | Concentración MAS-FEM | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 27/12/2025 | Partido Amistoso CANTABRIA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 29/12/2025 | Concentración MAS-FEM | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 30/12/2025 | Partido Amistoso Torneo ESPILLA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 03/01/2026 - 08/01/2026 | CESA | | | | | | |
| **2026** | | | | | | | |
| 1/2/2026 | Entrenamiento MAS-FEM | | | 1 | 1 | | |
| 1/3/2026 | Entrenamiento MAS-FEM | | | 1 | 1 | | |

## CALENDARIO ESKUBALOI HAZIAK 2025 - 2026

**2025**

| | |
|---|---|
| 21/09/2025 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 05/10/2025 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |
| 19/10/2025 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 02/11/2025 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |
| 16/11/2025 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 30/11/2025 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |

**2026**

| | |
|---|---|
| 25/01/2025 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 08/02/2026 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |
| 22/02/2026 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 08/03/2026 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |
| 22/03/2026 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 12/04/2026 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |
| 26/04/2026 | Entrenamiento MUTILAK / CHICOS |
| 17/05/2026 | Entrenamiento NESKAK / CHICAS |

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026**

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamalau talde hauek izango dira:

BAIGENE CORAZONISTAS
SAIEKO GRUPO SEYPREL
TXIKIPOLIT ZARAUTZ ZKE
ALCORTA FORGING GROUP ELGOIBAR
LEIZARAN ERNIO INMOBILIARIA
LAU BIDE JATETXEA LEGAZPI
URDANETA
PETRONOR MUSKIZ ESKUBALOIA
ESCOLAPIOS A
EREINTZA BEISSIER
EIBAR ESKUBALOIA B
DONIBANE KALABURTZA
INDUPIME BASAURI
ERROMOKO ESKUBALOIA-CB ROMO

## III.- LEHIAKETA FORMULA

2025-2026 denboraldiak 14 talde izango ditu. Lehiaketa hau joaneko eta itzulerako fase bakarrean jokatuko da, guztiak guztien aurka 26 jardunalditan.

Lehen postuan sailkatutako taldea Gizonezkoen Lehen Mailara igotzeko sektorean parte hartzeko sailkatuko da.
2. eta 5. postuen artean sailkatutako taldeek play-off bat jokatuko dute Gizonezkoen Lehen Mailara igotzeko 2. taldea zein den jakiteko.
Play-offa honela jokatuko da: 2.a vs 5.a eta 3.a vs 4.a.
Norgehiagoka hauetako irabazleek Gizonezkoen Lehen Mailara igotzeko 2. postuagatik jokatuko dute.

Arbitraje-eskubideen, ohar-emaileen, federazio-ordezkariaren eta joan-etorrien gastuak parte hartzen duten taldeen kontura izango dira, erdibana.
Play-offak antolatzeko, hala eskatuz gero, lehenengo fasean ondoen sailkatutako taldeek izango dute lehentasuna.

Klubek antolaketan interesik ez badute, Euskal Eskubaloi Federazioaren kontura izango da, eta arbitraje eta federazio-ordezkariaren gastuak parte hartzen duten lau taldeen artean banatuko dira, erdibana. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskatzeko epea 2026/04/27an 20:00etan amaituko da. Eskabideak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz (hartu-agiriarekin) bidaliko dira 2026/04/27ko 20:00ak baino lehen. Antolakuntza-aukerak dituen taldeak ez badu inolako eskabiderik edo uko-idazkirik jasotzen, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Azken 2 sailkatuak lurralde ligara jaitsiko dira. 1. Maila Nazionaleko jaitsierarik balego, 12. sailkatua jaitsiko litzateke, eta horrela hurrenez hurren.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

IV.- GIZONEZKOEN BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALAREN 2. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Euskal Federazioak gutxienez gizonezkoen senior mailako berrogei (40) talde baditu probintzia eta/edo lurralde txapelketetan lehiatzen, lehen bi sailkatuak sailkatuko dira Gizonezkoen Bigarren Mailako Txapelketa Nazionalaren 2. fasea jokatzeko.

Aipatutako 2. fasea 2026ko maiatzaren 22tik 24ra egingo da, kontzentrazio bidez. Parte hartuko duten taldeak lau, bost edo sei taldeko sei sektoretan banatuko dira, Estatuko Faserako sailkatzen diren taldeen kopuruaren arabera. Lau taldeko sektoreetan, liga sistemari jarraituz jokatuko da, guztiak guztien aurka, partida bakarrera. Taldeak sektoreetan banatzeko, hurbiltasun geografikoa hartuko da kontuan, eta lurralde federazio bereko taldeek ez dute bat egingo sektore berean.

2. Faseko edo Estatu Faseko sei sektoreetako bakoitzean sailkatutako lehen taldea automatikoki igoko da Gizonezkoen Estatuko Lehen Mailara.

V.- JAITSIERAK

Azken bi sailkatuak probintzia lehiaketetara jaitsiko dira. Jaitsitako taldeen kopurua aldatu egingo da Gizonezkoen Estatuko 1. Mailatik jaisten diren taldeen arabera edo Gizonezkoen Estatuko 1. Mailara igotzen diren taldeen arabera, lurralde honetakoak badira.

VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

a) Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
   Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

b) Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

c) Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

   PARTIDAK LARUNBATEAN: 15:00etatik 20:00etara (hasiera orduak).
   IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00tatik 15:00etara (hasiera ordua).
   LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

   Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua).

d) Partiden ordutegiak Euskal Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

e) 2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

VII.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Euskal Eskubaloi Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen gizonezkoen senior mailako lehiaketetan, lizentzia behar bezala tramitatuta daukaten gizonezko guztiek parte hartu ahal izango dute, eta, gehienez ere, klub eta/edo filial bereko gazte mailako zortzi jokalarik talde bakoitzeko, baldin eta lizentzia bideratuta badaukate, horri buruz ezarritako araudiarekin bat etorriz.

JOKALARIEN KUPO NAGUSIA
Parte hartuko duen talde bakoitzak hamabi (12) jokalari eduki ahal izango ditu gutxienez, eta hogeita hiru (23) gehienez (23/06/28ko batzarra)

LIZENTZIEN KUPO GEHIGARRIA
Taldeek, partida bakoitzean, klub bereko eta/edo beheragoko filialeko taldeetako senior (2003, 2004, 2005, 2006, 2007an jaioak) eta/edo gazte (2008 eta 2009) mailako zortzi jokalari eduki ahal izango dituzte, ez nominatiboak, eta nahi adina neurketatan jokatzeko zerrendan egon ahalko dira. Jokalari horietako bi 2002. urtera arte jaiotakoak izan daitezke.

Ohar orokorrak:

Jokalari gazteek aktan behar bezala izena eman eta senior mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten talde seniorreko "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Beren klubeko eta/edo filialeko senior mailako taldearekin parte hartuko duten gazte mailako jokalariek ez dute gazte mailako izaera galduko, eta gazte mailako taldearekin jokatu ahal izango dute klubak hala erabakitzen duen aldiro.

Kupo gehigarriko jokalariak gehienez ere bi partidatarako zerrendan sartu ahalko dira kirol jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.

Arbitroak behartuta daude, partidaren aktan, neurketaren mailatik behera jokatu ohi duten jokalarien izen-abizenak jasotzera, nortasun agiri nazionaleko zenbakia (NAN), kategoria eta jaiotza data berariaz adierazita.

Atal hau kontuan hartuta, gizonezkoen senior mailako taldeetan parte har dezaketen jokalarien "kupo gehigarria", alegia, klub eta/edo filial bereko beheragoko mailetako taldeetatik datozenen kupoa, ondoren azalduko dena izango da:

| | **SENIOR MAILAKO JOKALARIAK** | **SENIOR MAILAKO JOKALARIAK** | **GAZTE MAILAKO JOKALARIAK** |
|---|---|---|---|
| | 2002 eta aurrekoak | 2003, 2004, 2005, 2006, 2007 | 2008 eta 2009 |
| **KUPO GEHIGARRIKO JOKALARIEN GEHIENEKO KOPURUA PARTIDAKO** | 2 | 6 | 0 |
| | 2 | 5 | 1 |
| | 2 | 4 | 2 |
| | 2 | 3 | 3 |
| | 2 | 2 | 4 |
| | 2 | 1 | 5 |
| | 2 | 0 | 6 |
| | 1 | 6 | 1 |
| | 1 | 5 | 2 |
| | 1 | 4 | 3 |
| | 1 | 3 | 4 |
| | 1 | 2 | 5 |
| | 1 | 1 | 6 |
| | 1 | 0 | 7 |
| | 0 | 8 | 0 |
| | 0 | 7 | 1 |
| | 0 | 6 | 2 |
| | 0 | 5 | 3 |
| | 0 | 4 | 4 |
| | 0 | 3 | 5 |
| | 0 | 2 | 6 |
| | 0 | 1 | 7 |
| | 0 | 0 | 8 |

Senior mailako zortzi jokalari horietatik bi 2002era arte jaiotako senior mailako jokalari nazionalak izan daitezke, klub eta/edo filial bereko beheragoko senior mailako taldeetakoak.

**OSO GARRANTZITSUA:** Lehen Mailako Txapelketa Nazionalera Igotzeko Sektorean, ez da onartzen klub eta/edo filial bereko beheragoko senior mailako taldeetatik etorri eta 2002. urtera arte jaiotako jokalaririk sartzea. 2003, 2004, 2005, 2006 eta 2007an jaiotakoak bakarrik daude baimenduta.

Txapelketa honetan, hautagarria izan ez eta Europako Erkidegokoa izango ez den jokalari bat (1) eduki ahal izango du talde batek kontratatuta.

Hona hemen hautagarria ez den jokalari bat fitxatzeko jarraitu beharreko tramiteak xehatuta:

Interesa duen klubak Transfer eskaera egingo dio Espainiako Eskubaloi Federazioari, eta Misquad plataformaren bidez eskatu beharko du, kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa gehituta.

Transferra Espainiako Eskubaloi Federazioaren bidez jaso ondoren, fitxa tramitatuko da.

Gizonezkoen senior kategoria guztietan, hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalariren inskripzioa eta presentzia fisikoa (2014ko ekainaren 28ko Ohiko Batzar Nagusiaren erabakia).

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak gutxienez jokalarien 12 fitxa behar bezala bideratuta izatea.

Talde batek fitxen kupoa beteta badauka, gehienez hiru aldaketa egin ditzake, indarrean dagoen legedia betez.

Parte hartzen duten talde guztiek partida guztietan gutxienez hamar (10) jokalari izan behar dituzte AKTAN INSKRIBATUTA eta FISIKOKI PRESENTE. Arau hori betetzen ez badute, HAMAR EUROKO (10,00 €) ISUNA ezarriko zaie ezarritako gutxienekoa osatzeko falta den jokalari bakoitzeko.

IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Bigarren Mailako Txapelketaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia igandean izango da, 12:15ean, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOTZEKO ARAUDIA 2025-2026**

I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

Lehiaketa honetan talde bakar batek parte hartu ahal izango du klub bakoitzeko. Era berean, talde batek ezin izango du Gizonezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketan parte hartu, baldin eta talde horren klubak dagoeneko beste talde bat badauka txapelketa horretan.

Federazio bakoitzaren 2025-2026 denboraldian dagokien lurralde lehiaketan parte hartu eta lehen postuetan sailkatu diren taldeek fase honetan parte hartzeko eskubidea izango dute. Hona hemen taldeok:

Gipuzkoan lehen eta bigarren sailkatu direnak.
Bizkaian lehen eta bigarren sailkatu direnak.
Arabako lehen sailkatua, baldin eta parte hartzen duen lurralde lehiaketako lehen 5 postuetan sailkatu bada. Talde horrek uko eginez gero, parte hartzen duen lurralde lehiaketako hurrengo sailkatuari egokituko zaio lekua.
Seigarren taldea Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako senior mailako talde parte hartzaileen kopuruaren araberakoa izango da.

III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Lehen fasea:

6 taldeko multzo batean jokatuko da, partida bateko liga sistemari jarraituz, non Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako txapeldunek etxean hiru partida eta kanpoan bi jokatzearen onura izango duten. Txapeldunetako batek parte hartzen ez badu, zozketa bat egingo da lurralde bakoitzeko bigarren sailkatuen artean, 5 jardunaldietatik etxean hiru partida nork jokatuko dituen ikusteko.
Lehen fase honetako txapelduna Gizonezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketara igoko da.

Fase honetako egutegiaren zozketa 2026/04/10an egingo da, 12:00tan, federazioan.

Bigarren fasea:

2. postutik 5.era sailkatutako taldeek play-off bat jokatuko dute igoerako bigarren posturako:

1. jardunaldia:
1. finalerdia: lehen faseko 2. sailkatua vs lehen faseko 5. sailkatua.
2. finalerdia: lehen faseko 3. sailkatua vs lehen faseko 4. sailkatua.

2. jardunaldia:
Finala: 1. finalerdiko irabazlea vs 2. finalerdiko irabazlea.

Final honetako txapelduna Gizonezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketara igoko da.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Finalerdia eta finala antolatzen dituenak 1.233€-ko kanona ordainduko du arbitraje eskubideen eta ohar hartzaileen, federazioko ordezkarien eta horiei dagozkien joan-etorrien gastuak ordaintzeko.
Finalerdia eta finala antolatzeko, hala eskatuz gero eta kanona ordainduz gero, lehen fasean ondoen sailkatutako taldeek izango dute lehentasuna.

Klubek antolaketan interesik ez badute, Euskal Eskubaloi Federazioaren kontura izango da, eta arbitraje gastuak eta federazioko ordezkariarenak laurden bana banatuko dira parte hartzen duten lau taldeen artean. 2025-2026 denboraldirako antolakuntza eskaerak egiteko epea 2026/05/18an amaituko da, 20:00etan. Eskabideak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/05/18ko 20:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

IV.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lehiaketa honetarako, GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO Euskadiko Txapelketarako ezarritako araudi guztia aplikatuko da.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026**

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamabi talde hauek izango dira:

AMEZTOI ZARAUTZ ZKE
BERANGO URDULIZ ESKUBALOIA
CONSTRUCCIONES UGARTE ALOÑA MENDI KE
DREYKY DJ SAN ADRIAN
KUKULLAGA ETXEBARRI
EREINTZA BITEK
URDAIBAI BILBOATS
IRAULI-BOSTEKO
ZUHEGAN ORIO ERAGIN
MALAPE TABERNA ELGOIBAR
LEIZARAN LANBROA TABERNA
ZUAZO SENIOR LV

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau joaneko eta itzulerako fase bakarrean jokatuko da, guztiak guztien aurka 22 jardunalditan.
Lehen postuan sailkatutako taldea Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko sektorea jokatzeko sailkatuko da.
2. eta 5. postuen artean sailkatutako taldeek play-off bat jokatuko dute Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko sektorean zein 2. taldek jokatzen duen jakiteko.
Play-offa honela jokatuko da: 2.a vs 5.a eta 3.a vs 4.a.
Norgehiagoka hauetako talde irabazleek Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko 2. postuagatik jokatuko dute.

Arbitraje-eskubideen, ohar-emaileen, federazio-ordezkariaren eta joan-etorrien gastuak parte hartzen duten taldeen kontura izango dira, erdibana.
Play-offak antolatzeko, hala eskatuz gero, lehenengo fasean ondoen sailkatutako taldeek izango dute lehentasuna.

Klubek antolaketan interesik ez badute, Euskal Eskubaloi Federazioaren kontura izango da, eta arbitraje zein federazio-ordezkariaren gastuak parte hartzen duten lau taldeen artean banatuko dira, erdibana. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskatzeko epea 2026/04/27an 20:00etan amaituko da. Eskabideak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz (hartu-agiriarekin) bidaliko dira 2026/04/27ko 20:00ak baino lehen. Antolakuntza-aukerak dituen taldeak ez badu inolako eskabiderik edo uko-idazkirik jasotzen, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Azken 2 sailkatuak lurralde ligara jaitsiko dira. Zilarrezko Ohorezko mailatik jaitsierarik balego, 10. sailkatua jaitsiko litzateke, eta horrela hurrenez hurren.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

IV.- EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALAREN 2. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Euskadiko Federazioak emakumezkoen senior mailako gutxienez hamabi (12) talde baditu probintzia eta/edo lurralde txapelketetan lehiatzen, igotzeko benetako aukerak dituzten lehen bi sailkatuak sailkatuko dira Emakumezkoen Lehen Mailako Txapelketa Nazionalaren 2. fasea jokatzeko; igo nahi den kategorian ez da klub bereko talderik egon behar (19/06/29ko batzarra).

Aipatutako 2. fasea 2026ko maiatzaren 21etik 24ra egingo da, kontzentrazio bidez. Parte hartuko duten taldeak hiru, lau edo bost taldeko sei sektoretan banatuko dira, Estatuko Faserako sailkatzen diren taldeen kopuruaren arabera. Hiru edo lau taldeko sektoreetan, liga sistemari jarraituz jokatuko da, guztiak guztien aurka, partida bakarrera. Taldeak sektoreetan banatzeko, hurbiltasun geografikoa hartuko da kontuan, eta lurralde federazio bereko taldeek ez dute bat egingo sektore berean.

2. Faseko edo Estatu Faseko sei sektoreetako bakoitzean sailkatutako lehen taldea automatikoki igoko da Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailara.

Ez da egongo Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko promoziorik.

V.- TALDEKAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK

Azken **bi** postuetan sailkatutako talde biak probintzia lehiaketetara jaitsiko dira.

Jaitsitako taldeen kopurua aldatu egingo da Zilarrezko Ohorezko Mailatik jaisten diren taldeen edo Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzen diren taldeen arabera, lurralde honetakoak badira.

Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketara igoko dira, alde batetik, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurraldeetako irabazleen arteko kanporaketa irabazten duen taldea, Euskal Eskubaloi Federazioak izendatutako zelai neutralean jokatuz. Fase honetako arbitraje-gastuak erdibana ordainduko dira klub parte-hartzaileen artean.
Bestalde, kanporaketa honetako galtzaileak Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetako 2. sailkatuen aurka jokatuko du eta lehen kanporaketako galtzaileari antolaketarako lehen aukera emango zaio. Uko eginez gero, lurraldeko 2.en artean zozketatuko da antolaketa aukera. Parte hartzen duen talde bakar batek ere ez badu antolakuntza eskatzen, Euskadiko Federazioak izendatuko du zelaia. Fase honetako arbitraje-gastuak erdibana ordainduko dira klub parte-hartzaileen artean.
Talde garailea Emakumezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketara igoko da.

VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

a) Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
   Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

b) Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

c) Partidak, ahal dela, igandean jokatu beharko dira.

   Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

PARTIDAK LARUNBATEAN: 15:00etatik 20:00etara (hasiera orduak).
IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00tatik 15:00etara (hasiera ordua).

LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua).

d) Partiden ordutegiak Euskal Eskubaloi Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

e) 2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

## VII.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Euskal Eskubaloi Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

## VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen emakumezkoen senior mailako lehiaketetan, lizentzia behar bezala tramitatuta daukaten emakumezko guztiek parte hartu ahal izango dute, eta, gehienez ere, klub eta/edo filial bereko gazte mailako zortzi jokalarik talde bakoitzeko, baldin eta lizentzia bideratuta badaukate, horri buruz ezarritako araudiarekin bat etorriz.

JOKALARIEN KUPO NAGUSIA
Parte hartuko duen talde bakoitzak hamabi (12) jokalari eduki ahal izango ditu gutxienez, eta hogeita hiru (23) gehienez (23/06/28ko batzarra).

LIZENTZIEN KUPO GEHIGARRIA
Taldeek, partida bakoitzean, klub bereko eta/edo beheragoko filialeko taldeetako senior (2003, 2004, 2005, 2006, 2007an jaioak) eta/edo gazte (2008 eta 2009) mailako zortzi jokalari eduki ahal izango dituzte, ez nominatiboak, eta nahi adina neurketatan jokatzeko zerrendan egon ahalko dira. Jokalari horietako bi 2002. urtera arte jaiotakoak izan daitezke.

<u>Ohar orokorrak:</u>

Jokalari gazteek aktan behar bezala izena eman eta senior mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten talde seniorreko "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Beren klubeko eta/edo filialeko senior mailako taldearekin parte hartuko duten gazte mailako jokalariek ez dute gazte mailako izaera galduko, eta gazte mailako taldearekin jokatu ahal izango dute klubak hala erabakitzen duen aldiro.

Kupo gehigarriko jokalariak gehienez ere bi partidatarako zerrendan sartu ahalko dira kirol jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.

Arbitroak behartuta daude, partidaren aktan, neurketaren mailatik behera jokatu ohi duten jokalarien izen-abizenak jasotzera, nortasun agiri nazionaleko zenbakia (NAN), kategoria eta jaiotza data berariaz adierazita.

Atal hau kontuan hartuta, emakumezkoen senior mailako taldeetan parte har dezaketen jokalarien "kupo gehigarria", alegia, klub eta/edo filial bereko beheragoko mailetako taldeetatik datozenen kupoa, ondoren azalduko dena izango da:

| | **SENIOR MAILAKO JOKALARIAK** | **SENIOR MAILAKO JOKALARIAK** | **GAZTE MAILAKO JOKALARIAK** |
|---|---|---|---|
| | 2002 eta aurrekoak | 2003, 2004, 2005, 2006, 2007 | 2008 eta 2009 |
| **KUPO GEHIGARRIKO JOKALARIEN GEHIENEKO KOPURUA PARTIDAKO** | 2 | 6 | 0 |
| | 2 | 5 | 1 |
| | 2 | 4 | 2 |
| | 2 | 3 | 3 |
| | 2 | 2 | 4 |
| | 2 | 1 | 5 |
| | 2 | 0 | 6 |
| | 1 | 6 | 1 |
| | 1 | 5 | 2 |
| | 1 | 4 | 3 |
| | 1 | 3 | 4 |
| | 1 | 2 | 5 |
| | 1 | 1 | 6 |
| | 1 | 0 | 7 |
| | 0 | 8 | 0 |
| | 0 | 7 | 1 |
| | 0 | 6 | 2 |
| | 0 | 5 | 3 |
| | 0 | 4 | 4 |
| | 0 | 3 | 5 |
| | 0 | 2 | 6 |
| | 0 | 1 | 7 |
| | 0 | 0 | 8 |

Senior mailako zortzi jokalari horietatik bi 2002ra arte jaiotako senior mailako jokalari nazionalak izan daitezke, klub eta/edo filial bereko beheragoko senior mailako taldeetakoak.

**OSO GARRANTZITSUA:** Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailako Txapelketara Igotzeko Sektorean, ez da onartzen klub eta/edo filial bereko beheragoko senior mailako taldeetatik etorri eta 2002. urtera arte jaiotako jokalaririk hartzea. 2003, 2004, 2005 , 2006 eta 2007an jaiotakoak bakarrik daude baimenduta.

Txapelketa honetan, hautagarria izan ez eta Europako Erkidegokoa izango ez den jokalari bat (1) eduki ahal izango du talde batek kontratatuta.

Hona hemen hautagarria ez den jokalari bat fitxatzeko jarraitu beharreko tramiteak xehatuta:

1.- Interesa duen klubak Transfer eskaera egingo dio Espainiako Eskubaloi Federazioari, eta Misquad plataformaren bidez eskatu beharko du, kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa gehituta.

2.- Transferra Espainiako Eskubaloi Federazioaren bidez jaso ondoren, fitxa tramitatuko da.

Emakumezkoen senior kategoria guztietan, hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalariren inskripzioa eta presentzia fisikoa (2014ko ekainaren 28ko Ohiko Batzar Nagusiaren erabakia).

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak gutxienez jokalarien 12 fitxa behar bezala bideratuta izatea.

Talde batek fitxen kupoa beteta badauka, gehienez hiru aldaketa egin ditzake, indarrean dagoen legedia betez.

Parte hartzen duten talde guztiek partida guztietan gutxienez hamar (10) jokalari izan behar dituzte AKTAN INSKRIBATUTA eta FISIKOKI PRESENTE. Arau hori betetzen ez badute, HAMAR EUROKO (10,00 €) ISUNA ezarriko zaie ezarritako gutxienekoa osatzeko falta den jokalari bakoitzeko.

## IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Lehen Mailako Txapelketaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia igandean izango da, 12:15ean, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

## GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026

I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

Estatuko Fasea bi fasetan egingo da: Zonakoa, 2026ko maiatzaren 8tik 10era, eta finala, 2026ko maiatzaren 20tik 24ra.

II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

Txapelketa honetan 2025-2026 denboraldian parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamar talde hauek izango dira:

IRUDEK BIDASOA IRUN
TRAPAGARAN SESTAO
EREINTZA AGUAPLAST
GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
EIBAR ESKUBALOIA
LEIZARAN JAVIER ZERAMIKAK
TOLOSA C.F. ESKUBALOIA
BALONMANO BARAKALDO
INMO ZUMAIA PULPO EK
URDANETA

III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Lehen fasea:

Partida batera jokatuko da (9 jardunaldi) eta zein bikote lehiatuko diren zozketatuko da.

Promozioa:

1. faseko 7. eta 8. postuetan sailkatutako taldeek jokatuko dute, Arabako 1. taldearekin, Gipuzkoako eta Bizkaiko 1. eta 2. taldeekin eta Gipuzkoako edo Bizkaiko 3. taldearekin edo Arabako 2. taldearekin batera; talde hori, berez, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopuruaren arabera esleituko da, 4 taldeko 2 sektoretan banatuta. Talde guztiek elkarren aurka jokatuko dute ostiral, larunbat eta igandean, eta multzo bakoitzeko lehen taldea sailkatuko da 2. faserako.

2025/2026 denboraldirako, Arabako 1. taldeak uko eginez gero, Arabako taldea parte hartzen ari den lurraldeko taldeak beteko du postu hori.

Bi multzoak honela osatuko dira:

- A multzoa: 1. faseko 8. sailkatua, Gipuzkoako 1.a, Bizkaiko 2.a eta Arabako 1.a.
- B multzoa: 1. faseko 7. sailkatua, Bizkaiko 1.a, Gipuzkoako 2.a. 4. taldea Gipuzkoako 3.a, Bizkaiko 3.a edo Arabako 2.a izango da; hori esleitzeko, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopurua hartuko da kontuan.

Sektoreak lurralde mailako 1. taldeen egoitzetan jokatuko dira, liga bakoitzaren sailkapenaren arabera. Horiek uko eginez gero, EUSKAL LIGAko taldeek antolatuko lukete, eta, bestela, Lurralde Ligako 2. taldeek, eta horiek ere uko eginez gero, Lurraldeko 3. taldeek. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/01/18ko 24:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Gizonezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketaren Promozio Sektoreetan parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

Sektore bakoitzeko lehen taldea sailkatuko da EUSKAL LIGAko 2. faserako.

Fase honetan talde bakar batek parte hartu ahal izango du klub bakoitzeko. Eta talde batek ezin izango du parte hartu, baldin eta talde horren klubak dagoeneko beste talde bat badauka Euskadiko txapelketan.

Sektore hauetan jardunaldi bakoitzeko partida guztiak pista berean jokatu beharko dira.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 26/01/18an amaituko da, 24:00tan, eta zozketa 26/01/19an egingo da, 12:00etan, Federazioaren egoitzan.

<u>Bigarren fasea:</u>

2. fase hau 1. faseko 1. postutik 6.era bitartean sailkatutako taldeek eta promozioko multzo bakoitzeko 1. sailkatuek jokatuko dute (guztira 8 talde).
4 taldeko 2 multzotan jokatuko da, partida bikoitzera (6 jardunaldi), eta multzo bakoitzeko lehen 2 taldeak sailkatuko dira 4ko finalerako.

Multzoak honela osatuko dira:

| A multzoa | B multzoa |
|---|---|
| 1. faseko 1. sailkatua | 1. faseko 2. sailkatua |
| 1. faseko 4. sailkatua | 1. faseko 3. sailkatua |
| 1. faseko 5. sailkatua | 1. faseko 6. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 1. sailkatua | B Multzoko promozioan 1. sailkatua |

Fase honetako egutegiaren zozketa 2026/01/26an egingo da, 12:00etan, Euskal Eskubaloi Federazioan.

<u>Amaierako fasea</u>:

4ko finala.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/03/16an amaituko da, 20:00etan, eta zozketa 26/03/17an egingo da, 12:00etan, Euskal Eskubaloi Federazioaren egoitzan.

Amaierako fasea 1. faseko lehen sailkatuaren egoitzan jokatuko da (I ERANSKINA ikusi). Uko eginez gero, bigarren sailkatuak antolatuko luke, eta hola hurrenez hurren. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 26/03/16ko 20:00ak

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Gizonezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketaren amaierako fasearen sektorean parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

IV.- GAZTE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Denboraldi honetan lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak lurralde federazio bakoitzari dagozkionak izango dira, ondoren zehazten den baremoaren arabera.

4 talde: Gizonezkoen gazte mailako 65 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
3 talde: Gizonezkoen gazte mailako 40 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
2 talde: Gizonezkoen gazte mailako 25 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
Talde 1: Lurralde federazio guztiek talde bat izango dute gutxienez.

Lurralde Federazio bakoitzeko kopuru espezifikoa, berez, 2025-2026 denboraldian Espainiako Eskubaloiko Errege Federazioaren (RFEBM) Lehiaketen eta Jardueren Arloak aitortutako lurralde eta/edo probintzia lehiaketetan parte hartzen duten taldeen arabera zehaztuko da.

Zonako faseko sektoreak betetzera iristen ez badira, RFEBMk plaza horiek bete ahal izango ditu, Lurralde Federazioek RFEBMri eskatu ondoren, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen. Lurralde bakoitzeko plaza bat emango da gehienez, hainbat alderdiri erreparatuta (lurralde lehiaketetan parte hartzen duten taldeen kopurua, eskubaloiaren sustapena, dagoeneko sailkatuta dauden taldeen kopurua...). Plaza osagarri horiek ezin izango dituzte eskuratu ezarritako baremoaren arabera gehieneko talde kopurua sailkatzen duten lurralde federazioek.

Euskal Ligan parte hartzen duten gazte mailako talde guztiek aldez aurretik konpromisoa hartzen dute, sailkatzen badira, Fase Nazionaletan parte hartzeko, salbu eta 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen, idatziz, sailkatuz gero Fase Nazionaletan ez parte hartzeko asmoa Euskal Federazioari jakinarazten badiote. Hori dela eta, azken sailkapenaren arabera hurrengo postuan sailkatu den taldeak parte hartuko luke.

Txapelketa honen Fase Nazionaletara aurkezten ez diren taldeek, baldin eta parte hartzeari garaiz eta behar bezala uko egin ez badiote, dagokien zigorra jasoko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK

1. fasea jokatu ondoren, kadeteen eta gazteen sailkapen bateratua kontuan hartuta, puntuaziorik txarrena duten AZKEN 3 KLUBAK JAITSIKO DIRA eta 4. KLUB OKERRENAK PROMOZIONATUKO du.

Zein bi klub igoko diren zehazteko, itzuli bakarreko liga bat jokatuko da 4 kluben artean (lurralde bakoitzeko lehen kluba eta euskal ligako laugarren klub txarrena), 2026ko maiatzaren 8tik 10era.

Kluben batek uko eginez gero, ligaxka bat jokatuko litzateke beste hiru kluben artean, eta 2 uko eginez gero, uko egiten ez duten bi klubak igoko lirateke.

Horretarako zozketa 2026/04/27an egingo da, 12:00etan.

## VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

Partidak, ahal dela, larunbatean jokatu beharko dira.

Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

PARTIDAK LARUNBATEAN: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara (hasiera orduak).
IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00etatik 15:00etara (hasiera ordua).
LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua). Lehiaketa ordutegia larunbat goizetara zabalduko da, kontrako taldearen aldez aurreko baimenik gabe eta arbitraje dietaren inolako kosturik gabe (2022/06/30eko Ohiko Batzarrean onartua).

Partiden ordutegiak Euskadiko Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

## VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

## VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lehiaketa ofizialaren hasieran, talde guztiek gutxienez hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalari eduki beharko dituzte. Jokalariok behar bezala emandako federazio lizentzia bana eduki beharko dute, edo, gutxienez, lizentzia hori tramitazio bidean izan beharko dute dagokion lurralde federazioaren aurrean.

Taldea, gehienez, gazte mailako lehen eta bigarren urteko hogeita hiru (23) jokalarik osatu ahal izango dute.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Hala ere, gehienez ere bigarren urteko (2010) kadete mailako lau (4) jokalari igo ahal izango dira gazte mailako taldearekin jokatzera, baldin eta klub bereko taldeetakoak badira eta talde eta jardunaldi bakoitzeko gehienez hogeita hiru (23) jokalari badaude. Nolanahi ere, bigarren urteko kadete mailako jokalari horiek ez dira nominatiboak izango.

Jokalari kadeteek aktan behar bezala izena eman eta jubenil mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten talde jubenileko "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Kadete mailako 2. urteko jokalari baimenduek ez dute beren jatorrizko txapelketan parte hartzeko eskubidea galduko, baina ezin izango dira jardunaldi eta data berean kadete eta gazte mailako taldeen zerrendetan sartu: asteburu bakoitzeko bi partida jokatu ahal izango dituzte bi taldeekin, baldin eta bi partidak egun berean jokatzen ez badira.

Azaldutako guztiak Euskal Eskubaloi Federazioak antolatutako lehiaketei eragingo die.

Gainera, gazte mailako bi talde edo gehiago dauden klubetan, izena gorabehera, Euskadiko Txapelketan parte hartzen ez duten beheko mailetako lau (4) jokalarirekin (ez nominatiboak) osatu ahal izango dira jokalari zerrendak (23/06/28ko batzarra), baldin eta talde bakoitzeko gehieneko jokalari kopurua (23) gainditzen ez bada.

Beste talde bateko jokalari gazte horiek aktan behar bezala izena eman eta euskal ligako gazteen mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten talde gaztearen "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, eta Euskal Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak gazte mailako 12 jokalariren fitxak behar bezala bideratuta edukitzea.

Kategoria honetan hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan.

Euskadiko Txapelketara igotzeko fasean, gehienez ere hogeita hiru (23) jokalari nominatibok parte hartuko dute, kategoria bereko edo beheragoko klub bereko beste talde batekoak izateagatik baimendutakoak barne. Taldeek lehiaketa hasi baino 90 minutu lehenago egingo den bilera teknikoan entregatu beharko dituzte parte hartuko duten jokalarien eta ofizialen lizentziak. Lehiaketa hauetakoren batean Federazioak ematen ez duen lizentzia bat daukaten jokalariek parte har badezakete, lizentziaz gain, NANa edo pasaportea aurkeztu beharko dute.

Parte hartzen duten talde guztiak behartuta daude partida bakoitzean 10 jokalari aktan inskribatzera eta fisikoki presente edukitzera. Arau hau betetzen ez bada, taldeari bost euroko (5,00 €) isuna ezarriko zaio zehaztutako kopurua betetzeko falta den jokalari bakoitzeko.

Estatu Txapelketako zonako fasean eta amaierako fasean hemezortzi (18) jokalarik parte hartuko dute gehienez.

Parte hartzen duten jokalari guztiek uneko denboraldiari dagokion Federazio Lizentzia eduki beharko dute, Euskal Federazioak bideratua.

Halaber, Zonako eta Amaierako Fasean, parte hartzaile guztiek Federazio Lizentzia eta Nortasun Agiri Nazionala (NAN), pasaportea edo gidabaimena eduki beharko dituzte.

IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Gazte Mailako Euskal Ligaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia larunbatean jokatu beharko da, 17:30ean, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026**

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

Estatuko Fasea bi fasetan egingo da: Zonakoa, 2026ko maiatzaren 1etik 3ra, eta finala, 2026ko maiatzaren 13tik 17ra.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian txapelketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamar talde hauek izango dira:

GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
CIMDE ELGOIBAR
KUKULLAGA ETXEBARRI
URDANETA
DHEMEN ZIPRI ORIO ERAGIN
OMEGA PERIPHERALS BASAURI
CREADOS PULPO EK
EGUI ERROTABARRI JUVENIL
LACTURALE BERA BERA
I&D TRANS BIDASOA IRUN

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Lehen fasea:

Partida batera jokatuko da (9 jardunaldi) eta zein bikote lehiatuko diren zozketatuko da.

Promozioa:

1. faseko 7. eta 8. postuetan sailkatutako taldeek jokatuko dute, Arabako 1. taldearekin, Gipuzkoako eta Bizkaiko 1. eta 2. taldeekin eta Gipuzkoako edo Bizkaiko 3. taldearekin edo Arabako 2. taldearekin batera; talde hori, berez, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopuruaren arabera esleituko da, 4 taldeko 2 sektoretan banatuta. Talde guztiek elkarren aurka jokatuko dute ostiral, larunbat eta igandean, eta multzo bakoitzeko lehen taldea sailkatuko da 2. faserako.

2025/2026 denboraldirako, Arabako 1. taldeak uko eginez gero, Arabako taldea parte hartzen ari den lurraldeko taldeak beteko du postu hori.

Bi multzoak honela osatuko dira:

- A multzoa: 1. faseko 8. sailkatua, Gipuzkoako 1.a, Bizkaiko 2.a eta Arabako 1.a.

- B multzoa: 1. faseko 7. sailkatua, Bizkaiko 1.a, Gipuzkoako 2.a. 4. taldea Gipuzkoako 3.a, Bizkaiko 3.a edo Arabako 2.a izango da; hori esleitzeko, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopurua hartuko da kontuan.

Sektoreak lurralde mailako 1. taldeen egoitzetan jokatuko dira, liga bakoitzaren sailkapenaren arabera. Horiek uko eginez gero, EUSKAL LIGAko taldeek antolatuko lukete, eta, bestela, Lurralde Ligako 2. taldeek, eta horiek ere uko eginez gero, Lurraldeko 3. taldeek. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/01/18ko 24:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egiten diola ulertuko da.

Emakumezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketaren Promozio Sektoreetan parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

Sektore bakoitzeko lehen taldea sailkatuko da EUSKAL LIGAko 2. faserako.

Fase honetan talde bakar batek parte hartu ahal izango du klub bakoitzeko. Talde batek ezin izango du parte hartu, baldin eta talde horren klubak dagoeneko beste talde bat badauka Euskadiko txapelketan.

Sektore hauetan jardunaldi bakoitzeko partida guztiak pista berean jokatu beharko dira.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/01/18an amaituko da, 24:00etan, eta zozketa 2026/01/19an egingo da, 12:00tan, Federazioaren egoitzan.

Bigarren fasea:

2. fase hau 1. faseko 1. postutik 6.era bitartean sailkatutako taldeek eta promozioko multzo bakoitzeko 1. sailkatuak jokatuko dute (guztira 8 talde).
4 taldeko 2 multzotan jokatuko da, partida bikoitzera (6 jardunaldi), eta multzo bakoitzeko lehen 2 taldeak sailkatuko dira 4ko finalerako.

Multzoak honela osatuko dira:

| A multzoa | B multzoa |
|---|---|
| 1. faseko 1. sailkatua | 1. faseko 2. sailkatua |
| 1. faseko 4. sailkatua | 1. faseko 3. sailkatua |
| 1. faseko 5. sailkatua | 1. faseko 6. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 1. sailkatua | B Multzoko promozioan 1. sailkatua |

Fase honetako egutegiaren zozketa 2026/01/26an egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioan.

Amaierako fasea:

4ko finala.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/03/23ean amaituko da, 20:00etan, eta zozketa 2026/03/24an egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioaren egoitzan.

Amaierako fasea 1. faseko lehen sailkatuaren egoitzan jokatuko da (I ERANSKINA ikusi). Uko eginez gero, bigarren sailkatuak antolatuko luke, eta horrela hurrenez hurren. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/03/23ko 20:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Emakumezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketaren amaierako fasearen sektorean parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

## IV.- GAZTE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Denboraldi honetan lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak lurralde federazio bakoitzari dagozkionak izango dira, ondoren zehazten den baremoaren arabera.

4 talde: Emakumezkoen gazte mailako 40 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
3 talde: Emakumezkoen gazte mailako 30 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
2 talde: Emakumezkoen gazte mailako 15 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
Talde 1: Lurralde federazio guztiek talde bat izango dute gutxienez.

Lurralde Federazio bakoitzeko kopuru espezifikoa, berez, 2025-2026 denboraldian Espainiako Eskubaloiko Errege Federazioaren (RFEBM) Lehiaketen eta Jardueren Arloak aitortutako lurralde eta/edo probintzia lehiaketetan parte hartzen duten taldeen arabera zehaztuko da.

Zonako faseko sektoreak betetzera iristen ez badira, RFEBMk plaza horiek bete ahal izango ditu, Lurralde Federazioek RFEBMri eskatu ondoren, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen. Lurralde bakoitzeko plaza bat emango da gehienez, hainbat alderdiri erreparatuta (lurralde lehiaketetan parte hartzen duten taldeen kopurua, eskubaloiaren sustapena, dagoeneko sailkatuta dauden taldeen kopurua...). Plaza osagarri horiek ezin izango dituzte eskuratu ezarritako baremoaren arabera gehieneko talde kopurua sailkatzen duten lurralde federazioek.

Euskal Ligan parte hartzen duten gazte mailako talde guztiek aldez aurretik konpromisoa hartzen dute, sailkatzen badira, Fase Nazionaletan parte hartzeko, salbu eta 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen, idatziz, sailkatuz gero Fase Nazionaletan ez parte hartzeko asmoa Euskal Federazioari jakinarazten badiote. Hori dela eta, azken sailkapenaren arabera hurrengo postuan sailkatu den taldeak parte hartuko luke.

Txapelketa honen Fase Nazionaletara aurkezten ez diren taldeek, baldin eta parte hartzeari garaiz eta behar bezala uko egin ez badiote, dagokien zigorra jasoko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

## V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK

1. fasea jokatu ondoren, kadeteen eta gazteen sailkapen bateratua kontuan hartuta, puntuaziorik txarrena duten AZKEN 3 KLUBAK JAITSIKO DIRA eta 4. KLUB OKERRENAK PROMOZIONATUKO du.

Zein bi klub igoko diren zehazteko, itzuli bakarreko liga bat jokatuko da 4 kluben artean (lurralde bakoitzeko lehen kluba eta euskal ligako laugarren klub txarrena), 2026ko maiatzaren 8tik 10era.

Kluben batek uko eginez gero, ligaxka bat jokatuko litzateke beste hiru kluben artean, eta 2 uko eginez gero, uko egiten ez duten bi klubak igoko lirateke.

Horretarako zozketa 2026/04/27an egingo da, 12:00etan.

## VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

Partidak, ahal dela, larunbatean jokatu beharko dira.

Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

PARTIDAK LARUNBATEAN: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara (hasiera orduak).
IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00etatik 15:00etara (hasiera ordua).

LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua). Lehiaketa ordutegia larunbat goizetara zabalduko da, kontrako taldearen aldez aurreko baimenik gabe eta arbitraje dietaren inolako kosturik gabe (2022/06/30eko Ohiko Batzarrean onartua).

Partiden ordutegiak Euskadiko Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

## VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

## VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lehiaketa ofizialaren hasieran, talde guztiek gutxienez hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalari eduki beharko dituzte. Jokalariok behar bezala emandako federazio lizentzia bana eduki beharko dute edo, gutxienez, lizentzia hori tramitazio bidean izan beharko dute dagokion lurralde federazioaren aurrean.

Taldea, gehienez, gazte mailako lehen eta bigarren urteko hogeita hiru (23) jokalarik osatu ahal izango dute.

Hala ere, gehienez ere bigarren urteko (2010) kadete adineko lau (4) jokalari igo ahal izango dira gazte mailako taldearekin jokatzera, baldin eta klub bereko taldeetakoak badira eta talde eta jardunaldi bakoitzeko hogeita hiru (23) jokalari badaude gehienez. Nolanahi ere, bigarren urteko kadete mailako jokalari horiek ez dira nominatiboak izango.

Jokalari kadeteek aktan behar bezala izena eman eta jubenil mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten jubenil taldearen "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Kadete mailako 2. urteko jokalari baimenduek ez dute beren jatorrizko txapelketan parte hartzeko eskubidea galduko, baina ezin izango dira jardunaldi eta data berean kadete eta gazte mailako taldeen zerrendetan sartu: asteburu bakoitzeko bi partida jokatu ahal izango dituzte bi taldeekin, baldin eta bi partidak egun berean jokatzen ez badira.

Azaldutako guztiak Euskal Eskubaloi Federazioak antolatutako lehiaketei eragingo die.

Gainera, gazte mailako bi talde edo gehiago dauden klubetan, izena gorabehera, Euskadiko Txapelketan parte hartzen ez duten beheko maileetako lau (4) jokalarirekin (ez nominatiboak) osatu ahal izango dira jokalari zerrendak (23/06/28ko batzarra), baldin eta talde bakoitzeko gehieneko jokalari kopurua (23) gainditzen ez bada.

Beste talde bateko jokalari gazte horiek aktan behar bezala izena eman eta euskal ligako gazteen mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten talde gaztearen "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, eta Euskal Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak gazte mailako 12 jokalariren fitxak behar bezala bideratuta edukitzea.

Kategoria honetan hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan.

Euskadiko Txapelketara igotzeko fasean, gehienez ere hogeita hiru (23) jokalari nominatibok parte hartuko dute, kategoria bereko edo beheragoko klub bereko beste talde batekoak izateagatik baimendutakoak barne. Taldeek lehiaketa hasi baino 90 minutu lehenago egingo den bilera teknikoan entregatu beharko dituzte parte hartuko duten jokalarien eta ofizialen lizentziak. Lehiaketa hauetakoren batean Federazioak ematen ez duen lizentzia bat daukaten jokalariek parte har badezakete, lizentziaz gain, NANa edo pasaportea aurkeztu beharko dute.

Parte hartzen duten talde guztiak behartuta daude partida bakoitzean 10 jokalari aktan inskribatzera eta fisikoki presente edukitzera. Arau hau betetzen ez bada, taldeari bost euroko (5,00 €) isuna ezarriko zaio zehaztutako kopurua betetzeko falta den jokalari bakoitzeko.

Estatu Txapelketako zonako fasean eta amaierako fasean hemezortzi (18) jokalarik parte hartuko dute gehienez.

Parte hartzen duten jokalari guztiek uneko denboraldiari dagokion Federazio Lizentzia eduki beharko dute, Euskadiko Federazioak bideratua.

Halaber, Zonako eta Amaierako Fasean, parte hartzaile guztiek Federazio Lizentzia eta Nortasun Agiri Nazionala (NAN), pasaportea edo gidabaimena eduki beharko dituzte.

## IX.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Gazte Mailako Euskal Ligaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia larunbatean jokatu beharko da, 17:30ean, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

# GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

Estatuko Fasea bi fasetan egingo da: Zonakoa, 2026ko maiatzaren 14tik 17ra, eta finala, 2026ko maiatzaren 27tik 31ra.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian txapelketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamar talde hauek izango dira:

ZAISA BIDASOA IRUN
EIBAR ESKUBALOIA A
EREINTZA AGUAPLAST
GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
LEIZARAN CAMACHO CONSTRUCCION
SESTAO TRAPAGARAN
TOLOSA C.F. ESKUBALOIA
BALONMANO BARAKALDO
TAOSA PULPO EK
URDANETA A

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Lehen fasea:

Partida batera jokatuko da (9 jardunaldi) eta zein bikote lehiatuko diren zozketatuko da.

Promozioa:

1. faseko 7. eta 8. postuetan sailkatutako taldeek jokatuko dute, Arabako 1. taldearekin, Gipuzkoako eta Bizkaiko 1. eta 2. taldeekin eta Gipuzkoako edo Bizkaiko 3. taldearekin edo Arabako 2. taldearekin batera; talde hori, berez, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopuruaren arabera esleituko da, 4 taldeko 2 sektoretan banatuta. Talde guztiek elkarren aurka jokatuko dute ostiral, larunbat eta igandean, eta multzo bakoitzeko lehen hiru taldeak sailkatuko dira 2. faserako.

2025/2026 denboraldirako, Arabako 1. taldeak uko eginez gero, Arabako taldea parte hartzen ari den lurraldeko taldeak beteko du postu hori.

Bi multzoak honela osatuko dira:

- A multzoa: 1. faseko 8. sailkatua, Gipuzkoako 1.a, Bizkaiko 2.a eta Arabako 1.a.

- B multzoa: 1. faseko 7. sailkatua, Bizkaiko 1.a, Gipuzkoako 2.a. 4. taldea Gipuzkoako 3.a, Bizkaiko 3.a edo Arabako 2.a izango da; hori esleitzeko, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopurua hartuko da kontuan.

Sektoreak lurralde mailako 1. taldeen egoitzetan jokatuko dira, liga bakoitzaren sailkapenaren arabera. Horiek uko eginez gero, EUSKAL LIGAko taldeek antolatuko lukete, eta, bestela, Lurralde Ligako 2. taldeek, eta horiek ere uko eginez gero, Lurraldeko 3. taldeek. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/01/18ko 24:00ak baino lehen.
Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egiten diola ulertuko da.

Gizonezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketaren Promozio Sektoreetan parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, Euskal Eskubaloi Federazioak esleituko du egoitza, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

Sektore bakoitzeko lehen hiru taldeak sailkatuko dira EUSKAL LIGAko 2. faserako.

Fase honetan talde bakar batek parte hartu ahal izango du klub bakoitzeko. Eta talde batek ezin izango du parte hartu, baldin eta talde horren klubak dagoeneko beste talde bat badauka Euskadiko txapelketan.

Sektore hauetan jardunaldi bakoitzeko partida guztiak pista berean jokatu beharko dira.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/01/18an amaituko da, 24:00tan, eta zozketa 2026/01/19an egingo da, 12:00tan, Federazioaren egoitzan.

Bigarren fasea:

2. fase hau 1. faseko 1. postutik 6.era bitartean sailkatutako taldeek eta promozioko multzo bakoitzean ondoen sailkatu diren 3 taldeek jokatuko dute (guztira 12 talde).
6 taldeko 2 multzotan jokatuko da, partida bikoitzera (10 jardunaldi), eta multzo bakoitzeko lehen 2 taldeak sailkatuko dira 4ko finalerako.

Multzoak honela osatuko dira:

| A multzoa | B multzoa |
|---|---|
| 1. faseko 1. sailkatua | 1. faseko 2. sailkatua |
| 1. faseko 4. sailkatua | 1. faseko 3. sailkatua |
| 1. faseko 5. sailkatua | 1. faseko 6. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 1. sailkatua | B Multzoko promozioan 1. sailkatua |
| B Multzoko promozioan 2. sailkatua | A Multzoko promozioan 2. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 3. sailkatua | B Multzoko promozioan 3. sailkatua |

Fase honetako egutegiaren zozketa 2025/01/27an egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioan.

Amaierako fasea:

4ko finala.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/04/20an amaituko da, 20:00etan, eta zozketa 2026/04/21ean egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioaren egoitzan.

Amaierako fasea 1. faseko lehen sailkatuaren egoitzan jokatuko da (I ERANSKINA ikusi). Uko eginez gero, bigarren sailkatuak antolatuko luke, eta horrela hurrenez hurren. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/04/20ko 20:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Gizonezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketaren azken fasearen sektorean parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

## IV.- KADETE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Denboraldi honetan lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak lurralde federazio bakoitzari dagozkionak izango dira, ondoren zehazten den baremoaren arabera.

4 talde: Gizonezkoen kadete mailako 65 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
3 talde: Gizonezkoen kadete mailako 40 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
2 talde: Gizonezkoen kadete mailako 25 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
Talde 1: Lurralde federazio guztiek talde bat izango dute gutxienez.

Lurralde Federazio bakoitzeko kopuru espezifikoa, berez, 2025/2026 denboraldian Espainiako Eskubaloiko Errege Federazioaren (RFEBM) Lehiaketen eta Jardueren Arloak aitortutako lurralde eta/edo probintzia lehiaketetan parte hartzen duten taldeen arabera zehaztuko da.

Zonako faseko sektoreak betetzera iristen ez badira, RFEBMk plaza horiek bete ahal izango ditu, Lurralde Federazioek RFEBMri eskatu ondoren, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen. Lurralde bakoitzeko plaza bat emango da gehienez, hainbat alderdiri erreparatuta (lurralde lehiaketetan parte hartzen duten taldeen kopurua, eskubaloiaren sustapena, dagoeneko sailkatuta dauden taldeen kopurua...). Plaza osagarri horiek ezin izango dituzte eskuratu ezarritako baremoaren arabera gehieneko talde kopurua sailkatzen duten lurralde federazioek.

Euskal Ligan parte hartzen duten kadete mailako talde guztiek aldez aurretik konpromisoa hartzen dute, sailkatzen badira, Fase Nazionaletan parte hartzeko, salbu eta 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen, idatziz, sailkatuz gero Fase Nazionaletan ez parte hartzeko asmoa Euskal Federazioari jakinarazten badiote. Hori dela eta, azken sailkapenaren arabera hurrengo postuan sailkatu den taldeak parte hartuko luke.

Txapelketa honen Fase Nazionaletara aurkezten ez diren taldeek, baldin eta parte hartzeari garaiz eta behar bezala uko egin ez badiote, dagokien zigorra jasoko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

## V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK

1. fasea jokatu ondoren, kadeteen eta gazteen sailkapen bateratua kontuan hartuta, puntuaziorik txarrena duten AZKEN 3 KLUBAK JAITSIKO DIRA eta 4. KLUB OKERRENAK PROMOZIONATUKO du.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Zein bi klub igoko diren zehazteko, itzuli bakarreko liga bat jokatuko da 4 kluben artean (lurralde bakoitzeko lehen kluba eta euskal ligako laugarren klub txarrena), 2026ko maiatzaren 8tik 10era.

Kluben batek uko eginez gero, ligaxka bat jokatuko litzateke beste hiru kluben artean, eta 2 uko eginez gero, uko egiten ez duten bi klubak igoko lirateke.

Horretarako zozketa 2026/04/27an egingo da, 12:00etan.

## VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

Partidak asteburuan jokatu beharko dira, ostiral arratsaldez, larunbatez eta igande goizez.

Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

LARUNBATEKO PARTIDAK: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara (hasiera orduak).
IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00etatik 15:00etara (hasiera ordua).

LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua). Lehiaketa ordutegia larunbat goizetara zabalduko da, kontrako taldearen aldez aurreko baimenik gabe eta arbitraje dietaren inolako kosturik gabe (2022/06/30eko Ohiko Batzarrean onartua).

Partiden ordutegiak Euskal Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

## VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lehiaketa ofizialaren hasieran, talde guztiek gutxienez hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalari eduki beharko dituzte. Jokalariok behar bezala emandako federazio lizentzia bana eduki beharko dute, edo, gutxienez, lizentzia hori tramitazio bidean izan beharko dute dagokion lurralde federazioaren aurrean.

Taldea, gehienez, kadete mailako lehen eta bigarren urteko hogeita hiru (23) jokalarik osatu ahal izango dute.

Hala ere, gehienez ere bigarren urteko (2012) haur mailako lau (4) jokalari igo ahal izango dira kadete mailako taldearekin jokatzera, baldin eta udalerri bereko haur talde batekoak badira eta talde bakoitzeko gehienez hogeita hiru (23) jokalariko kupoa gainditzen ez bada. Bigarren urteko haur mailako jokalari horiek nominatiboak izango dira.

Bigarren urteko haur mailako jokalariak aktan behar bezala izena eman eta kadete mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten kadete taldeko "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen, tutoreen eta Aldundiaren baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Baimendutako jokalariek haur mailako izaera galduko dute edo ez, aldundi bakoitzak onartuta daukanaren arabera.

Gainera, kadete mailako bi talde edo gehiago dauden klubetan, izena gorabehera, Euskadiko Txapelketan parte hartzen ez duten beheko mailetako lau (4) jokalarirekin (ez nominatiboak) osatu ahal izango dira jokalari zerrendak (23/06/28ko batzarra), baldin eta talde bakoitzeko gehieneko jokalari kopurua (23) gainditzen ez bada.

Beste talde bateko jokalari kadete horiek aktan behar bezala izena eman eta euskal ligako kadete mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten kadete taldearen "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, eta Euskal Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak 12 jokalariren fitxak behar bezala bideratuta edukitzea.

Kategoria honetan hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan.

Euskadiko Txapelketara igotzeko fasean, gehienez ere hogeita hiru (23) jokalari nominatibok parte hartuko dute, kategoria bereko edo beheragoko klub bereko beste talde batekoak izateagatik baimendutakoak barne. Taldeek lehiaketa hasi baino 90 minutu lehenago egingo den bilera teknikoan entregatu beharko dituzte parte hartuko duten jokalarien eta ofizialen lizentziak. Lehiaketa hauetakoren batean Federazioak ematen ez duen lizentzia bat daukaten jokalariek parte har badezakete, lizentziaz gain, NANa edo pasaportea aurkeztu beharko dute.

Parte hartzen duten talde guztiak behartuta daude partida bakoitzean 10 jokalari aktan inskribatzera eta fisikoki presente edukitzera. Arau hau betetzen ez bada, taldeari bost euroko (5,00 €) isuna ezarriko zaio zehaztutako kopurua betetzeko falta den jokalari bakoitzeko.

Estatu Txapelketako zonako fasean eta amaierako fasean hemezortzi (18) jokalarik parte hartuko dute gehienez.

Parte hartzen duten jokalari guztiek uneko denboraldiari dagokion Federazio Lizentzia eduki beharko dute, Euskal Federazioak bideratua.

Halaber, Zonako eta Amaierako Fasean, parte hartzaile guztiek Federazio Lizentzia eta Nortasun Agiri Nazionala (NAN), pasaportea edo gidabaimena eduki beharko dituzte.

## IX.- ARAU TEKNIKOAK

Kategoria honetan debekatuta dago substantzia itsaskorrak edo kolak erabiltzea.

Defentsa mistoa: Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen kadete mailako lehiaketetan baimenduta daude defentsa mistoak.

Jokalari espezialisten aldaketak ez dira onartuko erasoan/defentsan bakarrik, honako garapen eta azalpen hauei jarraituz:

GARAPENA: partidan zehar, ordezkoak beren taldea baloiaren jabe denean bakarrik sartu ahal izango dira jokalekuan, ohar hartzaileari-kronometratzaileari abisatu gabe, baldin eta ordezkatzen dituzten jokalariek zelaia utzi badute.

AZALPENA: talde bat baloiaren jabe dela ulertu behar da:
Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.
Aldeko sake edo jaurtiketa bat egin behar denean.
Baloiaren jabe izanik egin beharreko aldaketa atezainarena denean, jokalekura sartzen den jokalariak atezainaren ekipazioarekin identifikatuta egon behar du (kamiseta edo petoa) (23/06/28ko batzarra).

Taldeen arduradunek eskatutako *time out*-etan, bi taldeek aldaketak egin ditzakete.

Gola lortu denean, gola sartu duen taldea dagoeneko baloiaren jabe ez dela ulertu behar da.

Kasu horietan, arau hauslearentzako zigorra bi minutuz kanporatua izatea izango da.

Ezinbesteko kasuetan, lesioetan eta abarretan, eta arbitroek joko denbora (*time out*) gelditu ondoren, baloiaren jabe ez den taldeak aldaketak egin ahal izango ditu, arbitroen baimenarekin.

7 metroko jaurtiketa batez zigortutako talde batek atezaina aldatu nahi badu, aldaketa hori baimendu egin behar da. Arbitroek, unean uneko inguruabarren arabera, aldaketa egiteko *time out* bat egin daitekeen baloratuko dute, baina aldaketa hori beti baimenduko da, joko denbora gelditu ala ez. Jokalari batek talde baten 7 metroko jaurtiketa guztiak egin ditzakeen bezala, atezain bakar bat jaurtiketa guztiak gelditzen saia daiteke.

Partida baten amaiera: kadete mailako lehiaketa guztietan, emakumezkoetan zein gizonezkoetan, talde batek 30 goleko aldea lortzen duenean, partida amaitutzat emango da une horretan dagoen emaitzarekin. Geratzen den joko denbora aktan gorabeherarik izan gabe eta sailkapen baliorik gabe jokatzen jarraituko da, eta ez dira

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

zenbatuko ez golak ez denbora horretan gertatzen den emaitza. Aurretik izandako diziplina zehapena baino ez da kontuan hartuko, eta inor deskalifikatu edo kanporatuz gero, Lehiaketa Batzordeari emango zaio horren berri. Azken gola hartu duen taldearentzako erdiko sake bidez ekingo zaion partidari (batzarrean 2017/07/01ean onartua).

X.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Kadete Mailako Euskal Ligaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia larunbatean jokatu beharko da, 16:00etan, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2025-2026**

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

Estatuko Fasea bi fasetan egingo da: Zonakoa, 2026ko maiatzaren 21tik 24ra, eta finala, 2026ko ekainaren 3tik 7ra.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian txapelketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hamar talde hauek izango dira:

GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
AMARO ERAIKUNTZAK ELGOIBAR
KUKULLAGA ETXEBARRI
LACTURALE BERA BERA
TALAIA PULPO EK
ATXEGA SUKIA ORIO ERAGIN
URDANETA
AUKERA ELEKTROTEKNIKA BIDASOA IRUN
PRINTHAUS BASAURI
APALATEGI ERROTABARRI CADETE

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Lehen fasea:

Partida batera jokatuko da (9 jardunaldi) eta zein bikote lehiatuko diren zozketatu egingo da.

Promozioa:

1. faseko 7. eta 8. postuetan sailkatutako taldeek jokatuko dute, Arabako 1. taldearekin, Gipuzkoako eta Bizkaiko 1. eta 2. taldeekin eta Gipuzkoako edo Bizkaiko 3. taldearekin edo Arabako 2. taldearekin batera; talde hori, berez, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopuruaren arabera esleituko da, 4 taldeko 2 sektoretan banatuta. Talde guztiek elkarren aurka jokatuko dute ostiral, larunbat eta igandean, eta multzo bakoitzeko lehen hiru taldeak sailkatuko dira 2. faserako.

2025/2026 denboraldirako, Arabako 1. taldeak uko eginez gero, Arabako taldea parte hartzen ari den lurraldeko taldeak beteko du postu hori.

Bi multzoak honela osatuko dira:

- A multzoa: 1. faseko 8. sailkatua, Gipuzkoako 1.a, Bizkaiko 2.a eta Arabako 1.a.

- B multzoa: 1. faseko 7. sailkatua, Bizkaiko 1.a, Gipuzkoako 2.a. 4. taldea Gipuzkoako 3.a, Bizkaiko 3.a edo Arabako 2.a izango da; hori esleitzeko, lurralde bakoitzak bere mailen eta sexuaren arabera duen talde kopurua hartuko da kontuan.

Sektoreak lurralde mailako 1. taldeen egoitzetan jokatuko dira, liga bakoitzaren sailkapenaren arabera. Horiek uko eginez gero, EUSKAL LIGAko taldeek antolatuko lukete, eta, bestela, Lurralde Ligako 2. taldeek, eta horiek ere uko eginez gero, Lurraldeko 3. taldeek. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/01/18ko 24:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egiten diola ulertuko da.

Emakumezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketaren Promozio Sektoreetan parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, Euskal Eskubaloi Federazioak esleituko du egoitza, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

Sektore bakoitzeko lehen hiru taldeak sailkatuko dira EUSKAL LIGAko 2. faserako.

Fase honetan talde bakar batek parte hartu ahal izango du klub bakoitzeko. Eta talde batek ezin izango du parte hartu, baldin eta talde horren klubak dagoeneko beste talde bat badauka Euskadiko txapelketan.

Sektore hauetan jardunaldi bakoitzeko partida guztiak pista berean jokatu beharko dira.

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/01/18an amaituko da, 24:00etan, eta zozketa 2026/01/19ean egingo da, 12:00tan, Federazioaren egoitzan.

Bigarren fasea:

2. fase hau 1. faseko 1. postutik 6.era bitartean sailkatutako taldeek eta promozioko multzo bakoitzean ondoen sailkatu diren 3 taldeek jokatuko dute (guztira 12 talde).
6 taldeko 2 multzotan jokatuko da, partida bikoitzera (10 jardunaldi), eta multzo bakoitzeko lehen 2 taldeak sailkatuko dira 4ko finalerako.

Multzoak honela osatuko dira:

| A multzoa | B multzoa |
| --- | --- |
| 1. faseko 1. sailkatua | 1. faseko 2. sailkatua |
| 1. faseko 4. sailkatua | 1. faseko 3. sailkatua |
| 1. faseko 5. sailkatua | 1. faseko 6. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 1. sailkatua | B Multzoko promozioan 1. sailkatua |
| B Multzoko promozioan 2. sailkatua | A Multzoko promozioan 2. sailkatua |
| A Multzoko promozioan 3. sailkatua | B Multzoko promozioan 3. sailkatua |

Fase honetako egutegiaren zozketa 2026/01/26an egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioan.

Amaierako fasea:

4ko finala.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Fase honen antolaketa tasa 1.233€-koa da, arbitrajeak eta federazioko ordezkaria barne. 2025-2026 denboraldirako antolaketa eskabideak egiteko epea 2026/04/27an amaituko da, 20:00etan, eta zozketa 2026/04/28ean egingo da, 12:00tan, Euskal Eskubaloi Federazioaren egoitzan.

Amaierako fasea 1. faseko lehen sailkatuaren egoitzan jokatuko da (I ERANSKINA ikusi). Uko eginez gero, bigarren sailkatuak antolatuko luke, eta horrela hurrenez hurren. Eskabideak eta ukoak posta elektronikoz (info@fvascabm.com) eta/edo posta ziurtatuz bidaliko dira, hartu izanaren agiriarekin, 2026/04/20ko 20:00ak baino lehen. Antolaketa aukerak dituen taldeak idatzizko eskabiderik edo ukorik egiten ez badu, eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

Emakumezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketaren azken fasearen sektorean parte hartzen duten taldeetako batek ere ez badu sektore hori antolatu nahi, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAK ESLEITUKO DU EGOITZA, eta kanona (1.233 euro) lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko da.

## IV.- KADETE MAILAKO TXAPELKETA NAZIONALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK

Denboraldi honetan lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak lurralde federazio bakoitzari dagozkionak izango dira, ondoren zehazten den baremoaren arabera.

4 talde: Emakumezkoen kadete mailako 40 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
3 talde: Emakumezkoen kadete mailako 30 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
2 talde: Emakumezkoen kadete mailako 15 talde lurraldeko eta/edo probintziako lehiaketetan.
Talde 1: Lurralde federazio guztiek talde bat izango dute gutxienez.

Lurralde Federazio bakoitzeko kopuru espezifikoa, berez, 2025/2026 denboraldian Espainiako Eskubaloiko Errege Federazioaren (RFEBM) Lehiaketen eta Jardueren Arloak aitortutako lurralde eta/edo probintzia lehiaketetan parte hartzen duten taldeen arabera zehaztuko da.

Zonako faseko sektoreak betetzera iristen ez badira, RFEBMk plaza horiek bete ahal izango ditu, Lurralde Federazioek RFEBMri eskatu ondoren, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen. Lurralde bakoitzeko plaza bat emango da gehienez, hainbat alderdiri erreparatuta (lurralde lehiaketetan parte hartzen duten taldeen kopurua, eskubaloiaren sustapena, dagoeneko sailkatuta dauden taldeen kopurua...). Plaza osagarri horiek ezin izango dituzte eskuratu ezarritako baremoaren arabera gehieneko talde kopurua sailkatzen duten lurralde federazioek.

Euskal Ligan parte hartzen duten kadete mailako talde guztiek aldez aurretik konpromisoa hartzen dute, sailkatzen badira, Fase Nazionaletan parte hartzeko, salbu eta 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen, idatziz, sailkatuz gero Fase Nazionaletan ez parte hartzeko asmoa Euskal Federazioari jakinarazten badiote. Hori dela eta, azken sailkapenaren arabera hurrengo postuan sailkatu den taldeak parte hartuko luke.

Txapelketa honen Fase Nazionaletara aurkezten ez diren taldeek, baldin eta parte hartzeari garaiz eta behar bezala uko egin ez badiote, dagokien zigorra jasoko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

## V.- KLUBEN ARABERAKO JAITSIERAK ETA IGOERAK

1. fasea jokatu ondoren, kadeteen eta gazteen sailkapen bateratua kontuan hartuta, puntuaziorik txarrena duten AZKEN 3 KLUBAK JAITSIKO DIRA eta 4. KLUB OKERRENAK PROMOZIONATUKO du.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

Zein bi klub igoko diren zehazteko, itzuli bakarreko liga bat jokatuko da 4 kluben artean (lurralde bakoitzeko lehen kluba eta euskal ligako laugarren klub txarrena), 2026ko maiatzaren 8tik 10era.

Kluben batek uko eginez gero, ligaxka bat jokatuko litzateke beste hiru kluben artean, eta 2 uko eginez gero, uko egiten ez duten bi klubak igoko lirateke.

Horretarako zozketa 2026/04/27an egingo da, 12:00etan.

VI.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, halabeharrez edo Diziplina Batzordearen erabakiz atzeratu egin behar direnak izan ezik.
Ezinbesteko arrazoia pandemia egoera baten ondorio denean, Euskal Eskubaloi Federazioaren Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Araudi hori 2020ko urriaren 10ean onartu zen Ezohiko Batzar Nagusian.

Baliabide ekonomikorik eza ez da, inola ere, ezinbesteko arrazoitzat hartuko.

Partidak asteburuan jokatu beharko dira, ostiral arratsaldez, larunbatez eta igande goizez.

Partiden ordutegiak bat etorri beharko dira araudi honekin:

PARTIDAK LARUNBATEAN: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara (hasiera ordua).
IGANDE ETA JAIEGUNETAKO PARTIDAK: 9:00etatik 15:00etara (hasiera ordua).

LARUNBATA JAIEGUNA bada, JAIEGUNEKO ordutegia aplikatuko da.

Lehiaketa ordutegia ostiral arratsaldeetara luzatuko da, baldin eta jardunaldi berean bada, inplikatutako taldeek aldez aurretik adostuta, eta arbitraje dietan inolako kosturik izan gabe (2008ko ekainaren 14ko Ohiko Batzarrean onartua). Lehiaketa ordutegia larunbat goizetara zabalduko da, kontrako taldearen aldez aurreko baimenik gabe eta arbitraje dietaren inolako kosturik gabe (2022/06/30eko Ohiko Batzarrean onartua).

Partiden ordutegiak Euskal Federazio honetan jakinarazi beharko dira, txapelketaren aurreko asteleheneko 14:00ak baino lehen, eta Euskal Eskubaloi Federazioaren webgunean eman beharko da horren berri.

2018-19 denboralditik aurrera, Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen lehiaketa guztietan derrigorrezkoa izango da akta digitala egitea. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek ordenagailu eramangarri bat jarri beharko dute jokalekuan bertan.

VII.- ORDUTEGI ALDAKETAK ETA ATZERATZEAK

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

Data aldaketa baimentzen bada, atzeratzeko nahiz aurreratzeko, partida ezin izango da larunbat arratsaldean egin.

VIII.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lehiaketa ofizialaren hasieran, talde guztiek gutxienez hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalari eduki beharko dituzte. Jokalariok behar bezala emandako federazio lizentzia bana eduki beharko dute edo, gutxienez, lizentzia hori tramitazio bidean izan beharko dute dagokion lurralde federazioaren aurrean.

Taldea, gehienez, kadete mailako lehen eta bigarren urteko hogeita hiru (23) jokalarik osatu ahal izango dute.

Hala ere, gehienez ere bigarren urteko (2012) haur mailako lau (4) jokalari igo ahal izango dira kadete mailako taldearekin jokatzera, baldin eta udalerri bereko haur talde batekoak badira eta talde bakoitzeko gehienez hogeita hiru (23) jokalariko kupoa gainditzen ez bada. Bigarren urteko haur mailako jokalari horiek nominatiboak izango dira.

Bigarren urteko haur mailako jokalariak aktan behar bezala izena eman eta kadete mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten kadete taldeko "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, atal horretan gurasoen, tutoreen eta Aldundiaren baimen-agiriak gehituta, eta Euskadiko Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.
Euskal Eskubaloi Federazioaren berariazko baimenik gabe, ezin izango dute goragoko mailan jokatu, eta ez dira egokitzat joko.

Baimendutako jokalariek haur mailako izaera galduko dute edo ez, aldundi bakoitzak onartuta daukanaren arabera.

Gainera, kadete mailako bi talde edo gehiago dauden klubetan, izena gorabehera, Euskadiko Txapelketan parte hartzen ez duten beheko mailetako lau (4) jokalarirekin (ez nominatiboak) osatu ahal izango dira jokalari zerrendak (23/06/28ko batzarra), baldin eta talde bakoitzeko gehieneko jokalari kopurua (23) gainditzen ez bada.

Beste talde bateko jokalari kadete horiek aktan behar bezala izena eman eta euskal ligako kadete mailako partida batean parte hartu ahal izateko, jokatuko duten kadete taldearen "kupo gehigarriaren" atalean sartuta egon beharko dute, eta Euskal Eskubaloi Federazioak baliozkotuta egon beharko dute, araudi honen VIII. puntuan ezartzen den bezala.

Lehiaketa hasi ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzak gazte mailako 12 jokalariren fitxak behar bezala bideratuta edukitzea.

Kategoria honetan hamasei (16) jokalari inskribatu ahal izango dira aktan.

Euskadiko Txapelketara igotzeko fasean, gehienez ere hogeita hiru (23) jokalari nominatibok parte hartuko dute, kategoria bereko edo beheragoko klub bereko beste talde batekoak izateagatik baimendutakoak barne. Taldeek lehiaketa hasi baino 90 minutu lehenago egingo den bilera teknikoan entregatu beharko dituzte parte hartuko duten jokalarien eta ofizialen lizentziak. Lehiaketa hauetakoren batean Federazioak ematen ez duen lizentzia bat daukaten jokalariek parte har badezakete, lizentziaz gain, NANa edo pasaportea aurkeztu beharko dute.

Parte hartzen duten talde guztiak behartuta daude partida bakoitzean 10 jokalari aktan inskribatzera eta fisikoki presente edukitzera. Arau hau betetzen ez bada, taldeari bost euroko (5,00 €) isuna ezarriko zaio zehaztutako kopurua betetzeko falta den jokalari bakoitzeko.

Estatu Txapelketako zonako fasean eta amaierako fasean hemezortzi (18) jokalarik parte hartuko dute gehienez.

Parte hartzen duten jokalari guztiek uneko denboraldiari dagokion Federazio Lizentzia eduki beharko dute, Euskal Federazioak bideratua.

Halaber, Zonako eta Amaierako Fasean, parte hartzaile guztiek Federazio Lizentzia eta Nortasun Agiri Nazionala (NAN), pasaportea edo gidabaimena eduki beharko dituzte.

## IX.- ARAU TEKNIKOAK

Kategoria honetan debekatuta dago substantzia itsaskorrak edo kolak erabiltzea.

Defentsa mistoa: Euskal Eskubaloi Federazioak antolatzen dituen kadete mailako lehiaketetan baimenduta daude defentsa mistoak.

Jokalari espezialisten aldaketak ez dira onartuko erasoan/defentsan bakarrik, honako garapen eta azalpen hauei jarraituz:

GARAPENA: partidan zehar, ordezkoak beren taldea baloiaren jabe denean bakarrik sartu ahal izango dira jokalekuan, ohar hartzaileari-kronometratzaileari abisatu gabe, baldin eta ordezkatzen dituzten jokalariek zelaia utzi badute.

AZALPENA: talde bat baloiaren jabe dela ulertu behar da:
Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.
Aldeko sake edo jaurtiketa bat egin behar denean.
Baloiaren jabe izanik egin beharreko aldaketa atezainarena denean, jokalekura sartzen den jokalariak atezainaren ekipazioarekin identifikatuta egon behar du (kamiseta edo petoa) (23/06/28ko batzarra).

Taldeen arduradunek eskatutako *time out*-etan, bi taldeek aldaketak egin ditzakete.

Gola lortu denean, gola sartu duen taldea dagoeneko baloiaren jabe ez dela ulertu behar da.

Kasu horietan, arau hauslearentzako zigorra bi minutuz kanporatua izatea izango da.

Ezinbesteko kasuetan, lesioetan eta abarretan, eta arbitroek joko denbora (*time out*) gelditu ondoren, baloiaren jabe ez den taldeak aldaketak egin ahal izango ditu, arbitroen baimenarekin.

7 metroko jaurtiketa batez zigortutako talde batek atezaina aldatu nahi badu, aldaketa hori baimendu egin behar da. Arbitroek, unean uneko inguruabarren arabera, aldaketa egiteko *time out* bat egin daitekeen baloratuko dute, baina aldaketa hori beti baimenduko da, joko denbora gelditu ala ez. Jokalari batek talde baten 7 metroko jaurtiketa guztiak egin ditzakeen bezala, atezain bakar bat jaurtiketa guztiak gelditzen saia daiteke.

Partida baten amaiera: kadete mailako lehiaketa guztietan, emakumezkoetan zein gizonezkoetan, talde batek 30 goleko aldea lortzen duenean, partida amaitutzat emango da une horretan dagoen emaitzarekin. Geratzen

den joko denbora aktan gorabeherarik izan gabe eta sailkapen baliorik gabe jokatzen jarraituko da, eta ez dira zenbatuko ez golak ez denbora horretan gertatzen den emaitza. Aurretik izandako diziplina zehapena baino ez da kontuan hartuko, eta inor deskalifikatu edo kanporatuz gero, Lehiaketa Batzordeari emango zaio horren berri. Azken gola hartu duen taldearentzako erdiko sake bidez ekingo zaion partidari (batzarrean 2017/07/01ean onartua).

X.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Kadete Mailako Euskal Ligaren arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Txapelketaren azken jardunaldia larunbatean jokatu beharko da, 16:00etan, baina Diziplina Batzordeak erabakiko du neurri hori beharrezkoa ez bada.

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (nazionalak)

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (Nazionalak) 2025-2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

| | |
|---|---|
| BIDASOA IRUN | ASOBAL |
| AMENABAR ZARAUTZ ZKE | Gizonezkoen 1. Maila |
| TOLOSA CF ESKUBALOIA | Gizonezkoen 1. Maila |
| EIBAR ESKUBALOIA | Gizonezkoen 1. Maila |
| SAIZAR USURBIL KE | Gizonezkoen 1. Maila |
| ILCAPO HONDARRIBIA-BIDASOA | Gizonezkoen 1. Maila |

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

### 1. Fasea:

1. Mailako 3 taldeko multzo bat, zozketa bidez itzuli batera eta 1. Mailako 2 taldeko kanporaketa bat.

3 taldeko multzoko lehen bi taldeak eta kanporaketako irabazlea sailkatuko dira.

### Finalerdia:

Kanporaketako irabazlea – multzoko 2. sailkatua

Multzoko 1. Sailkatua – BIDASOA IRUN

Parte hartuko duten taldeen artean adostu beharreko data; akordiorik lortzen ez bada, Euskal Eskubaloi Federazioak izango du finalerdiak erabakitzeko ahalmena.

### Finala:

Finalerdia irabazten duten taldeek jokatuko dute finala, finalista diren kluben artean erabaki beharreko datan, eta akordiorik lortzen ez bada, Euskal Eskubaloi Federazioak erabakiko du finala, Federazioak berak aukeratuko duen kantxan.

## IV.- ARAUDIA

Gizonezkoen Senior mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Gizonezkoen Senior mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da (filial batek lehiaketa berean parte hartzeko aukera duenean izan ezik).

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Beren txapelketa nazionaletan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Senior Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (nazionalak)

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA (Nazionalak) 2025- 2026**

I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

| | |
|---|---|
| SUPER AMARA BERA BERA | Emakumezkoen Ohorezko Elite Maila |
| BM. ZUAZO FEMENINO | Emakumezkoen Ohorezko Urre Maila |
| AIALA ZARAUTZ ZKE | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |
| LAUKO ERMUKO ERROTABARRI | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |
| EIBAR ESKUBALOIA | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |
| BERA BERA | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |
| GRUPO KURSAAL BASAURI | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |
| URDANETA | Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Maila |

III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

1. Fasea:

3 taldeko bi multzo osatuko dira eta itzuli batera jokatuko dute.

Multzo bakoitzeko irabazleak sailkatuko dira finalerdirako.

Finalerdia:

1. fasean sailkatutako taldeek jokatuko dute, SUPER AMARA BERA BERA eta BALONMANO ZUAZO FEMENINO taldeekin batera. Kanporaketa hauek beheren dagoen mailako taldearen kantxan jokatuko dira.

A MULTZOKO IRABAZLEA – SUPER AMARA BERA BERA

B MULTZOKO IRABAZLEA – BALONMANO ZUAZO FEMENINO

Finala:

Finalerdiko talde irabazleek jokatuko dute, Euskal Eskubaloi Federazioak zehaztu beharreko kantxan eta datan.

IV.- ARAUDIA

Emakumezkoen Senior Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Emakumezkoen Senior Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

## VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Beren txapelketa nazionaletan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

## VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Senior Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA 2025-2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

TXIKIPOLIT ZARAUTZ ZKE
URDANETA
ESCOLAPIOS A
ALCORTA FORGING GROUP ELGOIBAR
INDUPIME BASAURI
EREINTZA BEISSIER
EREINTZA ESKUBALOIA B

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

### 1. Fasea:

4 taldeko 2 multzotan eta 3 taldeko beste multzo batean jokatuko da.

### Finalerdia:

Finalerdirako multzo bakoitzeko lehen bi taldeak sailkatuko dira:
A multzoko 1. – B multzoko 2.
B multzoko 1. – A multzoko 2.

### Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Gizonezkoen Senior Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Gizonezkoen Senior Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

IV.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako gizonezkoen senior mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Senior Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILAKO EUSKAL KOPA 2025- 2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

AMEZTOI ZARAUTZ ZKE
ZUHEGAN ORIO ERAGIN
KUKULLAGA ETXEBARRI
MALAPE TABERNA ELGOIBAR
ZUAZO SENIOR LV
URDAIBAI BILBOATS
DREYKY DJ SAN ADRIAN
BERANGO URDULIZ ESKUBALOIA

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

1. Fasea:

4 taldeko 2 multzotan itzuli bakarrera jokatuko da.

Finalerdia:

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek jokatuko dute:
A multzoko 1. – B multzoko 2.
B multzoko 2. – A multzoko 2.

Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Emakumezkoen Senior Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Emakumezkoen Senior Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

## VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako emakumezkoen senior mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

## VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Senior Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025- 2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

IRUDEK BIDASOA IRUN
GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
EIBAR ESKUBALOIA
TOLOSA C.F. ESKUBALOIA
BALONMANO BARAKALDO
INMO ZUMAIA PULPO EK
URDANETA
EREINTZA AGUAPLAST
LEIZARAN JAVIER ZERAMIKAK

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

### 1. Fasea:

3 taldeko 3 multzo osatuko dira eta liga bat jokatuko da, partida batera. Multzo bakoitzeko lehen sailkatua eta 2. hoberena sailkatuko dira finalerdia jokatzeko.

### Finalerdia:

2º hoberena A multzokoa balitz B multzoko 1.arekin jokatuko luke 1.aren etxean eta beste finalerdia 1ºA–1ºC
2º hoberena B multzokoa balitz C multzoko 1. arekin jokatuko luke 1.aren etxean eta beste finalerdia 1ºB-1ºA
2º hoberena C multzokoa balitz A multzoko 1.arekin jokatuko luke 1.aren etxean eta beste finalerdia 1ºC-1º B

### Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Gizonezkoen Gazte Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Gizonezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

## VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako gizonezkoen gazte mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

## VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Gazte Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025- 2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
CIMDE ELGOIBAR
KUKULLAGA ETXEBARRI
OMEGA PERIPHERALS BASAURI
LACTURALE BERA BERA
CREADOS PULPO EK
I&D TRANS BIDASOA IRUN
EGUI ERROTABARRI JUVENIL
DHEMEN ZIPRI ORIO ERAGIN
URDANETA

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

### 1. kanporaketa:

Partida batera jokatuko duten 3 taldeko 2 multzo osatuko dira, eta joan-etorriko bi kanporaketa jokatuko dira.

### Finalerdia:

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuak eta kanporaketa bakoitzeko irabazleak sailkatuko dira.
1 kanporaketako irabazlea – 2 kanporaketako irabazlea
1 taldeko irabazlea – 2 taldeko irabazlea

### Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Emakumezkoen Gazte Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Emakumezkoen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

## VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako emakumezkoen gazte mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

## VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Gazte Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025- 2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

ZAISA BIDASOA IRUN
LEIZARAN CAMACHO CONSTRUCCION
GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
EIBAR ESKUBALOIA A
BALONMANO BARAKALDO
TOLOSA C.F. ESKUBALOIA
TAOSA PULPO EK
URDANETA A

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

1. Fasea:

4 taldeko 2 multzo osatuko dira, eta partida batera jokatuko dute.

Finalerdia

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak sailkatuko dira.
1 taldeko lehena – 2 taldeko bigarrena
2 taldeko lehena – 1 taldeko bigarrena

Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Gizonezkoen Kadete Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Gizonezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako gizonezkoen kadete mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gizonezkoen Kadete Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA

# OI.AR.ER

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# EMAKUMEZKOEN KADETE MAILAKO EUSKAL KOPA 2025- 2026

## I.- NOIZ EGINGO DEN

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialaren arabera.

## II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2025-2026 denboraldian lehiaketa honetan parte hartuko duten taldeak ondoren zerrendatzen diren hauek izango dira:

GRAN CAMPING ZARAUTZ ZKE
AMARO ERAIKUNTZAK ELGOIBAR
KUKULLAGA ETXEBARRI
PRINTHAUS BASAURI
LACTURALE BERA BERA
AUKERA ELEKTROTEKNIKA BIDASOA IRUN
TALAIA PULPO EK
ATXEGA SUKIA ORIO ERAGIN
URDANETA
APALATEGI ERROTABARRI CADETE

## III.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau hiru fasetan jokatuko da.

### 1. kanporaketa:

Partida batera jokatuko duten 3 taldeko 2 multzo osatuko dira, eta joan-etorriko bi kanporaketa jokatuko dira.

### Finalerdia

Multzo bakoitzeko lehenak eta kanporaketako irabazleak sailkatuko dira.
A taldeko irabazlea – B taldeko irabazlea
A Kanporaketako irabazlea – B Kanporaketako irabazlea

### Finala:

2026ko apirilaren 12an

## IV.- ARAUDIA

Emakumezkoen Kadete Mailako Euskal Kopan aplikatu beharreko araudia Emakumezkoen Kadete Mailako Euskadiko Txapelketan aplikatzen dena da.

## V.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA DATA ALDATZEA

Partiden eta Lehiaketen Araudian xedatutakoaren arabera.

Aldaketaren bat izanez gero, eta horretarako araudiari jarraituz, Federazioari jakinarazi beharko zaio osteguneko 13:00ak baino lehen. Klub antolatzaileak 50 € ordainduko du ordutegia aldatzeagatik.

Nolanahi ere, EUSKAL FEDERAZIO honen baimena beharko da.

Espainiako edo Euskadiko selekzioaren jardueraren batek atzerapenik eragiten badu, Diziplina Batzordeak zehaztuko du noiz egingo den partida.

## VI.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Euskal Ligako emakumezkoen kadete mailako txapelketan parte hartzeko baimena duten jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.

## VII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Emakumezkoen Kadete Mailako Euskal Koparen arau espezifiko hauek I. atalean (TXAPELKETA GUZTIETARAKO ARAU OROKOR KOMUNAK) garatutakoarekin osatuko dira, bertan jasotzen diren eta Oinarri Espezifikoek aldatzen ez dituzten alderdi guztietan.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

# GIZONEZKOEN eta EMAKUMEZKOEN GAZTE eta KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA (klubak)

# OI.AR.ER

Igoera KLUBeka jokatuko da, eta itzuli batera egindako liga bat jokatuko da lau parte hartzaileren artean (kadete eta gazte mailako taldeak), asteburuan ostiral arratsaldez, larunbat goiz-arratsaldez eta igande goizez, 2026ko maiatzaren 8, 9 eta 10ean.

Sailkatutako klub guztiek eskatu ahal izango dute antolaketa. Eskaera bat baino gehiago egonez gero, zozketa egingo da. Igoera antolatzeak 1.233 euroko kuota dakar, eta antolatzaileak ordaindu beharko du. Inork antolatu nahi ez badu, Euskal Eskubaloi Federazioak esleituko du pista, eta gastuak lau parte hartzaileen artean zati berdinetan ordainduko dira.

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban lehen postuan sailkatutako klubek eta Euskadiko Txapelketaren lehen faseko 4. talde okerrenak parte hartuko dute.

Kluben batek uko eginez gero, ligaxka bat jokatuko litzateke beste hiru kluben artean, eta 2 uko eginez gero, uko egiten ez duten bi klubak igoko lirateke.

Puntu gehien lortzen dituzten bi klubak igoko dira.

Kanporaketa osoan puntuetan berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauen arabera igoko da, ondoren azaltzen den hurrenkeran:

1. Kadete mailako taldeen arteko neurketetan puntu gehien atera dituen kluba.

2. Kadete mailako taldeen arteko gol aldea.

3. Etxetik kanpo sartutako gol kopururik handiena kadete mailako taldeen artean.

4. Gazte mailako taldeen arteko gol aldea.

5. Etxetik kanpo sartutako gol kopururik handiena gazte mailako taldeen artean.

6. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, kadete mailako taldeen artean berdinketa hausteko neurketa bat egingo da zelai neutralean, arauzko luzapenekin. Beste berdinketa bat gerta ez dadin.

Euskal Eskubaloi Federazioa
Federación Vasca de Balonmano

## I. ERANSKINA

Emakumezkoen eta Gizonezkoen kadete eta gazteak

2022ko ekainaren 30eko batzarrean 4.11 puntuan onartutakoaren arabera:
"Fase erregularreko talde txapeldunen taldeari bere kategoriako azken fasea antolatzeko eskubidea ematea. Taldekako fasean mailaz igotako taldeen posizionamendua zozketatzea, mailaz igotako Bizkaiko taldea ez dadin beti B multzoan erori. Zozketatu edo baita urteka txandakatu ere".